ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREKIN (HEOC) BAT ETORRIZ, AURREZ AURRE ETA AUTOIKASKUNTZA-SISTEMEN BIDEZ EUSKARA-ESKOLAK EMATEKO ZERBITZU-KONTRATAZIOA ARAUTZEKOA, ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKO (ESD) BAT EZARTZEAREN BIDEZ.

AURKIBIDEA	ORRIALDEA
0. SARRERA	*3*
I. XEDAPEN OROKORRAK	*4*
1. Kontratuaren xedea	*4*
2. Kontratazio-organoa	*5*
3. Araubide juridikoa	*5*
4. Kontratatzeko gaitasuna	*7*
5. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	*11*
6. Aurrekontu-kreditua	*11*
7. ESDtik eratorritako kontratuen balio zenbatetsia	*11*
8. Eratorritako kontratuaren prezioa	*12*
9. Eratorritako kontratuaren prezioa eta beste aldaketa batzuk berrikustea	*13*
10. ESDren indarraldia, iraupen-epea eta ESDtik eratorritako kontratuak gauzatzeko epea	*13*
II.- I. FASEA: ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKOA EZARTZEA: HAUTAGAIAK HAUTATZEA	*13*
11. Atxikipen-eskaerak	*13*
12. I. fasean parte hartzeko eskaeraren aurkezpena	*14*
13. I. fasean parte hartzeko eskaeraren edukia	*15*
14. I. faseko kontratazio-mahaia	*17*
15. Eskuratze-sistema dinamikoa onartzea	*18*
III.- II. FASEA: BERARIAZKO KONTRATAZIOAK ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKOAREN ESPARRUAN	*18*
16. Berariazko kontratuen adjudikazioa	*18*
17. Lizitazio-prozedura	*19*
18. Esleipen-irizpideak eta berorien haztapena	*19*
19. II. faseko proposamenen aurkezpena	*19*
20. Proposamenen edukia	*22*
21. II. faseko kontratazio-mahaia: berariazko kontratazioak	*21*
22. ESDtik eratorritako berariazko kontratuen adjudikazioa	*22*
23. Behin betiko bermea	*22*
24. Kontratua burutzea	*23*
25. Azpikontratazioa	*23*
IV.- KONTRATUA EGIKARITZEA	
26. Kontratatuaren arduraduna	*24*
27. Kontratistaren betebeharrak	*25*
28. Gauzatzean erabilitako baliabideak	*25*
29. Lanarekin, gizarte-segurantzarekin eta lan-segurtasunarekin eta -osasunarekin lotutako betebeharrak	*26*
30. Kontratua betetzeko baldintza bereziak	*27*
31. Datuen konfidentzialtasuna eta trataera	*28*
32. Zigorrak	*31*
33. Prezioa ordaintzea	*32*
34. Kontratua lagatzea eta ABEEko kideak aldatzea	*34*
V. LAN-KONTRATUA AZKENTZEA	*36*
35. Betetzea, entregatzea, harrera-egitea eta likidatzea	*36*

36. Kontratua suntsiaraztea	*36*
37. Gorabeherak	*36*
38. Egintzak berrikusteko araubidea	*37*
0. ERANSKINA. Prozeduraren ezaugarri orokorren laburpen-taula	
I. ERANSKINA. Kategoria bakoitzeko ikastaroen zerrenda orientagarria	
II. ERANSKINA. ESDan parte hartzeko eskaeraren datu pertsonalak	
III. ERANSKINA. ESDan parte hartzeko eskaera	

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREKIN (HEOC) BAT ETORRIZ, AURREZ AURRE ETA AUTOIKASKUNTZA-SISTEMAREN BIDEZ EUSKARA-ESKOLAK EMATEKO ZERBITZU-KONTRATAZIOA ARAUTZEKOA, ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKO (ESD) BAT EZARTZEAREN BIDEZ.

0. SARRERA

Eskuratze-sistema dinamikoa (ESD) administrazio publikoen kontratazioa arrazionalizatzeko teknika bat da, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) bigarren liburuko I. tituluko II. kapituluan dago jasota.

Prozesu guztiz elektronikoa da, eta indarraldi osoan irekita izango dute hautaketa-irizpideak betetzen dituzten enpresa guztiek. Sistemak bi fase edo une izango ditu:

- I. fasea: «ESD ezartzea: hautagaiak hautatzea».
- II. fasea: «Eratorritako kontratazioa: kontratazio-organo bakoitzak eskuratze-sistema dinamikoaren esparruan egindako berariazko kontratazioak».

Eskuratze-sistema dinamikoa ezartzeko prozedura eta sistema horretatik eratorritako berariazko kontratazioen ondorengo adjudikazio-prozedurak EAEko Kontratazio Publikoaren Plataformako (https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/) ESDaren lizitazio-plataformaren bidez bakarrik egin ahal izango dira. Plataforma hori doakoa da eta 9/2017 SPKLren hamaseigarren xedapen gehigarrian (bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzeari buruzkoa) xedatutakoa betetzen du, horien bateragarritasunari, zehaztapen teknikoei eta sartzeko erraztasunari dagokienez.

Lizitatzaileak ESDan sartzeko SPKLren lehen liburuko I. tituluko II. kapituluko arau orokorrak hartu beharko dira kontuan, eta baldintza-agiri honen laugarren klausulan aipatzen diren gaitasunaren eta kaudimenaren gaineko irizpideak betetzen dituzten eskatzaile guztiak onartuko dira.

Berariazko kontratuetarako (ESD honetatik eratorri direnak) eskaintzak aurkezteko gonbidapenak aurrez onartutako enpresei bakarrik egingo zaizkie, prozedura murriztuaren arauei jarraituz, eta betiere SPKLren bigarren liburuko I. tituluko II. kapituluko 3. atalean adierazten diren berezitasunekin.

I. Fasea - ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKOA EZARTZEA: Hautagaiak hautatzea. Fase honek mugarri hauek hartzen ditu barne:

1. **ESDra atxikitzeko eskaeren hasierako aurkezpena:** I. fasea enpresa interesdunek atxikipen-eskaerak aurkeztean hasten da, eta baldintza-agiri honetan definitutako produktuen kasuan kasuko zerbitzu-kategoria edo -kategoriak zehazten dira. Eskaera horrekin batera, baldintza-agiri honetan eskatutako gaitasun-betekizunak eta kaudimen-irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar da.

Zentzu horretan, 30 eguneko hasierako epea ezarriko da atxikipen-eskaerak aurkezteko. Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman (https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/) sortutako ESDaren Plataforman.

Dena den, etengabe irekita dagoen sistema horren bidez enpresa berriek edonoiz aurkez ditzakete atxikipen-eskaerak.

2. **Parte hartzeko eskaeren ebaluazioa:** Parte hartzeko eskaerak aurkezteko hasierako epea amaitu ondoren, HABEko kontratazio-mahaiak aurkeztu diren hautagaitzak ebaluatuko ditu, baldintza-agirian eskatzen diren gaitasun-betekizunak eta kaudimen-irizpideak betetzen diren zehazteko, eta, beharrezkotzat joz gero, aurkeztutako dokumentazioa argitzeko edo zuzentzeko eskatu ahal izango du.

3. **Eskuratze-sistema dinamikoan onartutako enpresen hasierako zerrenda:** Ebaluazioa amaitzean, HABEko Zuzendaritzak, hau da, kontratazio-organoak, ESDan onartutako enpresen hasierako zerrenda onartuko du (baldintza-agiri honetan definitutako zerbitzu-kategoria bakoitzean), eta horren berri emango die aurkeztutako enpresei.

II. fasea - ERATORRITAKO KONTRATAZIOA: Kontratazio-organo bakoitzak eskuratze-sistema dinamikoaren esparruan egindako berariazko kontratazioak.

II. fase honetan gauzatuko da kontratazio-organoak euskara-ikastaroak emateko zerbitzuak lizitatzea, adjudikatzea eta eskuratzea, beharraren arabera, I. fasean kategoria bakoitzean aurrez onartutako enpresen artean.

Berariazko lizitazio bakoitzean, kontratazio-organoak eskaintzak aurkeztera **gonbidatuko ditu** – Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman ESDa lizitatzeko plataformaren bidez (https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/)– eskaintza aurkezteko kategorian aurrez onartu diren enpresa guztiak. Kontratazio-organoak ESD honetatik eratorritako berariazko kontratua adjudikatuko dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, betiere baldintza-agiri honetan ezarritako adjudikazio-irizpideak kontuan hartuta.

II. fasea hasi ondoren, enpresaren batek sisteman sartzea eskatzen badu, ezin izango du berariazko kontratazioen lizitazioetan parte hartu, baldin eta aurrez onartutako hautagaiei dagoeneko idatzizko gonbidapenak bidali bazaizkie.

ESDtik eratorritako berariazko kontratuak adjudikazioarekin amaituko dira (SPKLren 36.3 artikulua).

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA *(Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 16., 28., 99. eta 223.-226. artikuluak)*

1.1.- Kontratazioaren helburua da helduei euskara-ikastaroak aurrez aurre edo autoikaskuntza-sistemaren bidez emateko zerbitzuak eskuratzea Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC) betez, eta Eskuratze-Sistema Dinamiko (ESD) bat ezartzearen bidez.

1.2.- Agiri honetan arautzen dira ESDren ezarpena, eta hortik eratorritako berariazko kontratazioaren adjudikazioa eta betearazpena, aurreko apartatuan jasotako euskara-ikastaroak emateko.

1.3.- ESDa zerbitzu-kategoria hauetan egituratzen da:

1. kategoria: Aurrez aurreko ikastaroak.

2. kategoria: Autoikaskuntza-sistemaren bidezko ikastaroak

Aurrez aurreko zerbitzu-kategoria bakoitzean emango diren ikastaroak mota hauetakoak izan ahalko dira:

- Kontratistaren lokaletan ematen diren euskara-ikastaroak.

- Administrazioaren lokaletan ematen diren euskara-ikastaroak. Ikastaro horiek lekualdatutako ikasgelak izango dira.

- **Jarraituak**. Betearazpen-epeko aste guztietan modu jarraituan ematen diren ikastaroak, oporraldietan izan ezik.

-**Ez jarraituak edo etenak**. Etenda ematen diren ikastaroak dira, hau da, ikastaroaren eskola-orduak ematen diren asteak txandakakoak edo ez jarraituak dira.

Autoikaskuntza-sistemaren bidezko ikastaroak, aldiz, honako hauek izango dira:

- 190 orduko autoikaskuntza-ikastaroak.
- 75 orduko autoikaskuntza-ikastaroak.
- Iraupen desberdineko autoikaskuntza-ikastaroak.

Bestalde, **ESDtik eratorritako berariazko kontratuak sorten arabera egituratuko dira, eta kontratatuko den ikastaro bakoitza besteengandik bereizitako sorta bat izango da.**

Autoikaskuntza-ikastaroen kasuan, organo edo entitate bakoitzak egiten duen ikastaro-eskaera zerbitzu bakoitza sorta bat izango da.

1.4.- Enpresa interesdunek ESDra atxikitzeko eskatu ahal izango dute, kategoria batean edo bietan. Horretarako, baldintza-agiri honetan ezarritako hautaketa-irizpideak bete beharko dituzte.

1.5.- ESDren esparruan kontratatu eta gauzatuko diren zerbitzuek HEOCa bete beharko dute, hain zuzen ere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren Agindu bidez onetsia 2015eko urtarrilaren 15ean.

1.6.- Orientazio moduan eta irizpide ez baztertzaile gisa, emango diren ikastaroen ezaugarri orokorrak agiri honen *«I. Eranskina: kategoria bakoitzeko ikastaroen zerrenda orientagarria»* izeneko eranskinean jaso dira. Hurrenez hurren bakoitzari dagozkion Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko azaroaren 5eko 2195/2002 EE Erregelamenduaren bidez onartu zen Kontratu Publikoen Hiztegi Bateratuaren (CPV) lehen hiru digituei erreferentzia egiten zaie.

Eranskin horretan jasotako ikastaroen zerrenda orientatzailea da lizitatzaileentzat. Beraz, ez da kontratatu behar diren ikastaroak definitzen dituen zerrenda, eta ez da ez itxia ezta baztertzailea ere. Ez da nahitaezkoa ezta ere zerrenda horretako ikastaroak eskuratzea.

1.7.- ESD honetatik eratorritako berariazko kontratazio bakoitzaren helburu zehatza kontratazioaren zerbitzu sustatzaileak definituko du, ESDan aurrez onartutako hornitzaileei eskaintza eskatzeko unean.

1.8.- ESD honen esparruan egindako berariazko kontratazio bakoitzak behar bezala bete beharko ditu kontratazio-organoak berariazko kontratuaren lizitazioa egin aurretik onartutako administrazio-klausulen agiri honetan eta baldintza tekniko berezien agirian ezarritakoak, SPKLren 122.1 eta 124. artikuluekin bat etorriz.

2.- KONTRATAZIO-ORGANOA *(SPKLren 61. eta 63. artikuluak)*

ESDaren bi faseetako kontratazio-organoa HABEko zuzendaria izango da, edo, hala badagokio, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egiturari buruzko dekretuak ezartzen duen pertsona.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA

3.1.- Eskuratze-sistema dinamikoak **administrazio-izaera** du, eta kontratazioa arrazionalizatzeko sistema gisa arautzen da SPKLren 223.-226. artikuluetan.

3.2.- ESDaren esparruan adjudikatutako berariazko kontratuak administrazio-izaerako zerbitzu-kontratu gisa kalifikatzen dira, SPKLren 16. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

3.3.- Biak ondoren azalduko diren arau eta dokumentuen araberakoak izan beharko dira:

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (SPKL).
- Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren kontra ez doan heinean.
- 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoaren kontra ez doan heinean. - Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Agindua, herri-administrazioen kontratuei buruzko legerian ezarritako prozedura eta jarduketa batzuk telematikoki izapidetzeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesten dituena datu pertsonalen tratamenduari eta datuen zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/EE Zuzentaraua bertan behera uzten duena. - Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.
- Estatu mailako nahiz EAEko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada. Osagarri gisa, administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak.

3.3.- Alderdiak espresuki geratzen dira kontratu-izaerako dokumentuetan jasotakoaren mende.

3.4.- Dokumentuetan xedatutakoaren berri ez izateak ez du kontratista hori betetzetik salbuetsiko, eta eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak klausula guztiak onartzen dituela, salbuespen edo erreserbarik gabe.

3.5.- Hainbat arlotako informazioa: fiskalitatea, ingurumena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, enplegua babestea, lan-baldintzak, lan-arriskuen prebentzioa eta desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra, eta datuen babesa.

Erakunde hauetan dago gai hauen inguruko betebeharrei eta indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa:

a).- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakumearen Euskal Erakundea (EMAKUNDE).
b).- Fiskalitatea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako eta Nafarroako Foru Komunitateko foru-ogasunak, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia.
c).- Ingurumena babestea: IHOBE SA-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
d).- Enplegua babestea, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa: Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal erakunde autonomoa.
e).- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea, eta desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatzeko betebeharra: LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoa.
f).- Datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
g.)- Lehiaren defentsa: Lehiaren Euskal Agintaritza.

3.6.- Egin beharreko kontratazioan ematen diren egintzekin lotuta sor daitezkeen auzigaien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, SPKLren 27.1 artikuluan aurreikusitakoari

jarraikiz eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Era berean, kontratazioko aukerako errekurtso berezia aurkeztu ahal izango da administrazio-klausula berezien agiri honen aurka, baita SPKLren 44. artikuluko 2. apartatuan zerrendatutako egintza eta erabaki hauen aurka ere, ehun mila eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratu eratorriei dagokienez:

- Lizitazio-iragarkia, kontratazio-organoak berariazko kontratuetarako onartzen dituen baldintza tekniko berezien agiriak, eta kontratazioa arautuko duten baldintzak ezartzen dituzten kontratu-dokumentuak.

- Adjudikazio-prozeduran bete diren izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek zuzenean edo zeharka adjudikazioari buruz erabakitzen badute, prozedura bat betetzen jarraitzea eragozten badute edo defentsa-gabezia edo kalte konponezina ekartzen badute bidezko eskubide edo interesetan. Nolanahi ere, iritziko zaio kontratazio-mahaiak edo -organoak hautagaiak edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea erabakitzen duen egintzetan gertatzen direla aurreko inguruabarrak, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzen duten egintzetan, horien barnean direla nabarmenki baxuegiak izateagatik 149. artikulua aplikatuta baztertzen diren eskaintzak.

- Adjudikazio-erabakia.

- SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea oinarritzat daukaten aldaketak, aldaketak direla-eta beste adjudikazio bat egin beharra zegoelakoan.

Adjudikazioaren aurkako kontratazioko errekurtso berezia jarri ondoren prozedura eteteari dagokionez, SPKLren 53. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Errekurtso bereziaren ebazpena aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

3.7.- Aurreko apartatuan aipatutako egintzez bestelakoei eragiten dieten izapidetze-akatsak kontratazio-organoari jakinarazi ahal izango dizkiote interesdunek, zuzenbidearen arabera zuzendu ditzaten. Nolanahi ere, interesdunek, adjudikazio-egintzari errekurtsoa jartzean, aukera izango dute eragiten dieten irregulartasunak alegatzeko.

3.8.- SPKLren 44.2 artikuluan aipatzen diren eta errekurtso bereziaren bidez aurkaratu daitezkeen jarduketen aurka ezingo da administrazio-errekurtso arruntik aurkeztu.

3.9.- SPKLren 44.1.b) artikuluan adierazitako balio zenbatetsiaren atalasera iristen ez diren berariazko kontratuetatik eratorritako prozeduren egintzen aurka errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

3.10.- Aurrekoari kalterik egin gabe, kontratazio-organoak SPKLren 190. artikuluan ezarritako prerrogatibei buruzko prozeduretan hartzen dituen erabakiek –SPKLren 44. artikuluko 2. apartatuko d) letran aipatutako aldaketek salbu– amaiera emango diote administrazio-bideari, eta berehala betearazi beharko dira. Horien aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da horiek eman zituen organo berean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedatutakoaren arabera.

4.- KONTRATATZEKO GAITASUNA *(SPKLren 65. artikulua eta hurrengoak)*

4.1.- ESDaren ezarpen-prozeduran eta eratorritako berariazko kontratuen adjudikazioan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural eta juridiko guztiek, espainiarrek zein atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta ESDren 4.6 apartatuan parte hartzeko kaudimen-betekizunak betetzen badituzte.

Aurreko apartatuan adierazitako betekizunak betetzen dituzten eta ABEE batean elkartu diren pertsonek ere parte hartu ahal izango dute, legez aurreikusitako baldintzen arabera.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 66.1 artikuluan xedatutakoa betetzen duten pertsona juridikoek parte har dezakete, bai eta Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Hitzarmena sinatu duten estatuetako operadore ekonomikoek eta Europar Batasunetik kanpokoek ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67. eta 68.1 artikuluetan xedatutakoa betetzen badute, hurrenez hurren.

4.2.- Pertsona bakoitzak gehienez proposamen bat aurkeztu ahal izango du. Era berean, ezin dute ABEE baten kide gisa parte hartu bere kasa proposamen bat aurkeztu duten pertsonek, ez eta aldi berean zenbait ABEEtan parte hartu ere. Arau horiek urratuz gero, ez da onartuko pertsona horrek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

4.3.- Gaitasunari, kaudimenari, enpresa- edo lanbide-gaikuntzari eta kontratatua egiteko debekurik ezari buruzko inguruabarrak behar bezala bete beharko dira ESDan parte hartzeko eskaerak aurkezteko azken egunean, eta hala izan beharko du indarrean dagoen bitartean. Eta gauza bera eratorritako berariazko kontratuen kasuan ere.

Kontratazio-organoak lizitatzaileei eskatu ahalko die ziurtagiri eta justifikatzeko dokumentu guztiak edo horien zati bat aurkezteko edozein unetan, prozedura ondo egiten dela bermatzeko, kontratua adjudikatu aurretik. Halaber, aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuei buruzko argibideak emateko edo beste dokumentu batzuk aurkezteko ere eskatu ahal izango die kontratazio-mahaiak.

4.4.- ESDan eta sistema horretatik eratorritako berariazko kontratuetan parte hartzeko eskaera aurkeztu izanak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetan nahiz gainerako kontratu-dokumentuetan jasotako klausulak, inolako eragozpenik edo erreparorik gabe. Era berean, kontratazio-mahaiak eta kontratazio-organoak edozein unetan kontsultatu ahal izango dute eskuratze-sistema dinamikoa ezartzeko edo sistema horretatik eratorritako berariazko kontratuak adjudikatzeko prozedura, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan edo Europar Batasuneko kide den estaturen baten datu-base nazional batean jasotako datuak kontsultatzeko ere, baldin eta, azken kasu horretan, datu-basera sartzea doakoa bada. Operadore ekonomikoek ez dute nahitaez aurkeztu behar erregistro, zerrenda eta datu-base horietan agertzen diren datuak egiaztatzeko dokumentazioa.

4.5.- Kontratua egiteko debekuak.

Ezin izango dute kontraturik egin SPKLren 71. artikuluan zerrendatutako debekuren baten eraginpean daudenek.
Kontratua egiteko debekurik eza behar bezala egiaztatu beharko da, baldintza-agiri honen 13.1.5 klausulan ezarritako moduan.

4.6.- Kaudimena eta gaitasuna.

Eskuratze-sistema dinamikoan parte hartzeko eskaera aurkezteko, kaudimen ekonomiko eta gaitasun teknikoko gutxieneko betekizun batzuk bete behar dira. Betekizun horiek apartatu hauetan adierazitako justifikatze-baliabideen bidez egiaztatuko dira:

A). Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

Gaitasuna egiaztatzeko baliabideak: Euskarazko aurrez aurreko ikastaroak (1. Kategoria) ematearen inguruko urteko negozio-bolumena, betiere bukatutako azken hiru urteen artean onena kontuan hartuta, eraketa-egunen arabera edo enpresariaren jardueren hasieraren arabera eskuragarri dagoena.

Egiaztatu beharreko kaudimenaren gutxieneko atalasea: Kontuan izanik ikastaro edo kontratu eratorrien prezioa, gutxienez, 150.000 eurotakoa izan beharko da (azken hiru urteetako urteko negozio-bolumen onena aintzat hartuta).

2. kategoriako ikastaroen kasuan, lizitatzaileek 150.000,00 € edo gehiagoko negozio-bolumena izan behar dute helduen euskalduntzearen esparruan (bukatutako azken hiru urteen artean onena kontuan hartuta). Bolumen hori kalkulatzeko, ikasleen matrikulaziotik eratorritako diru-sarrera guztiak zenbatuko dira (ikasleek zuzenean ordaindutako matrikulak eta euskaltegi edo zentro homologatu bakoitzean euskara autoikasteko egindako matrikuletatik eratorritako diruz lagundutako finantzaketa).

Betekizunen zehaztapena: Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da.

B). ESDn parte hartzeko gaitasun teknikoa edo profesionala

Eskuratze Sistema Dinamikoan parte hartzeko lizitatzaileek ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

- Helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duen uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuan araututako baldintzak betetzea euskaltegi gisa eratzeko.

- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC) oinarritutako eta HABEko zuzendaritzak onartutako curriculum-proiektua izatea.

- Gutxienez egiaztatutako 3 urteko esperientzia izatea euskara-ikastaroak ematen oinarrizko curriculumaren arabera, lizitazio-iragarkia argitaratu aurreko azken 7 urteetan.

Sistema Dinamiko honen lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunean Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentro Homologatuen Erregistroan izena emanda egonik euskara irakasten egiaztatutako gutxieneko 3 urteko esperientziarik ez dutenak azken 7 urteetan Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumarekin (HEOC) bat etorriz sortu berriak direlako, gutxienez HEOCren maila bakoitzeko hiru ikastaro antolatuta izan beharko dituzte erregistroan izena eman zuten egunetik aurrera zenbatzen hasita igarotako ikasturte akademiko bakoitzean.

Gaitasuna egiaztatzeko baliabideak: Gaitasun teknikoa Euskaltegien eta Euskararen Autoikaskuntzarako Zentro Homologatuen Erregistroan izena emanda egoteari, curriculum-proiektuari eta esperientziari buruzko ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. HABEk egiaztatuko ditu, ofizioz, aurreko guztiak.

C). Gaitasun teknikoa edo profesionala berariazko kontratuen lizitazioetan parte hartzeko

Gaitasun teknikoa edo profesionala lizitatzaile bakoitzak ikasleak hartzeko duen gaitasunaren arabera zehaztuko da. Gaitasun hori neurtzeko ondoren adierazitakoak hartuko dira kontuan:

C.1 Lizitatzaile bakoitzari Kontratazio Mahaiak berariazko kontratu-lizitazio bakoitzean alegatutako kaudimen teknikoa zuzena dela egiaztatu eta lizitatzaileek ontzat eman ondoren, lizitatzaile bakoitzaren gehieneko gaitasun edo ahalmen teknikoa izango da hurrengo C.2 atalean zedarrituriko ehunekoa esleituko diren eskola-ordu guztien gainean aplikatuz suertatzen dena (hau da, une bakoitzean esleituko diren eskola-orduen batura gehi une horretaraino ESDren arabera esleitu direnena. 2. kategorian talde-orduen ordez, autoikaskuntza-matrikulak hartuko dira kontuan).

C.2 Lizitatzaile bakoitzaren gaitasun edo ahalmenaren ehuneko erabakitzailea hauxe izango da:

1. kategorian: 2023/24 ikasturtean, 2024ko martxoaren 31ra arte, ikastaroa eman behar den udal mugartean euskaltegi pribatuek emandako talde/ordu kopuruaren gainean, lizitatzaile bakoitzak egun horretara arte eremu berberean eman dituen talde/orduen kopurua aplikatuz suertatzen dena. Lekualdatutako ikasgelen kasuan, gaitasuna lurraldeko egoitza nagusiko udalerrian aitortzen zaion ahalmenak zehaztuko du.

2. kategorian: 2023/24 ikasturtean 2024ko martxoaren 31ra arte, autoikaskuntza zentroetan izandako matrikulazio kopuruen gainean, lizitatzaile bakoitzak egun horretara arte eman dituen matrikula-kopurua aplikatuz suertatzen dena.

Ondorio hauetarako, 190 eskola-orduko modulu estandarra izango da autoikaskuntza-matrikulen kopurua zenbatzeko oinarria; beraz, modulu standarrari matrikula bat egokituko zaio, eta beste iraupeneko ikastaroen matrikulak zenbatzean modulu standarraren araberako proportzioa aplikatuko da.

Kontuan hartuko dira HABEk dirulaguntzen ondorioetarako eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten talde/orduak (edo autoikaskuntza-matrikulak 2. kategorian), hain zuzen ere, arau honetan ezarritakoak:

- uztailaren 22ko 179/2003 Dekretua, Helduentzako Euskararen Irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jarduera eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzekoa (https://www.euskadi.eus/r48-bopv2/eu/bopv2/datos/2003/07/0304432a.pdf.

Eta gainera honako ebazpenean ezarritakoak:

- HABEko zuzendariaren 2022ko abuztuaren 31ko Ebazpena, euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuentzat 2022tik 2025 bitarteko ikasturteetarako dirulaguntza-deialdia egiten duena 2204028e.pdf (euskadi.eus).

Datu horiek guztiak HABEk egiaztatuko ditu ofizioz. Halaber, HABEk administrazioaren beharrak betetzeko kontratatuak izan diren ikastaroen talde-orduak zenbatuko dira, baldin eta aurreko baldintzak betetzen badituzte, taldea osatzeko gutxieneko ikasle-kopuruari dagokion baldintza izan ezik.

Enpresen aldi baterako elkarteei edo elkarlanean aurkeztutako enpresei edo zentroei esleitutako ikastaroetatik eratorritako gaitasunari dagokionez, kasu bakoitzean ikastaroa eman duen enpresari edo zentroari aitortuko zaio gaitasun hori. Azpikontratatuak izan diren ikastaroen kasuan, gaitasuna % 50ean aitortuko zaie esleipendunari eta azpikontratistari.

C.3 Aurrekoarekin lotuta, lizitatzaile batek parte hartzen duenean berariazko kontratuen lizitazio batean, edo jarraikako lizitazioetan, klausula C honetan ezarritakoaren araberako kaudimen tekniko nahikoa egiaztatu gabe, onartuta geldituko da parte hartu duen lizitazioetan partaidetza hori egiaztatu duen kaudimenarekin oinarrituta dagoen neurrian bakarrik. Lizitazio-prozeduratik at geldituko da kaudimen nahikoa egiaztatu ez duen sorten lizitazioetan.

C.4 Hala eta guztiz ere, eman beharreko ikastaroak zatiezinak direnez, lizitatzaile bakoitzaren gaitasun teknikoa edo profesionala neurtzen denean, kontuan hartuko da, baita ere, gaitasun handiagoa egiaztatzeko, aurreko formula aplikatuta ateratako emaitzaren ondorioz geratu diren orduei dagokien frakzioa, beste ikastaro baten lizitazioan ere parte hartu ahal izateko.

Halaber, gutxienez ikastaro baten esleipendun izateko gaitasun nahikoa aitortuko zaio lizitatzaileari Eskuratze-Sistema Dinamikoaren babespean egiten den berariazko kontratuen lehen lizitazioan, baldin eta agiri honetako 18. klausulan aurreikusitako adjudikazio-irizpideekin bat etorriz, lehen sailkatua bada lote batean edo zenbaitetan, eta ordu gutxien dituen loteak «Gaitasunaren» 4.6 klausula honetan ezarritako irizpideekin bat etorriz esleitzen zaion gaitasun teknikoa gainditzen badu ere.

C.5 Euskaltegi pribatuek C.2 atalean ezarritako irizpideen arabera 2024ko martxoaren 31ra arte eman dituzten talde/ordu guztiak (kontuan hartuta kontratisten ikasgeletan eta lekualdatutako geletan emandakoak) hauek dira:

- Bilbo 73.135 ordu/taldeko
- Donostia: 28.081 ordu/taldeko
- Gasteiz: 37.993 ordu/taldeko

2. kategoriari dagokionez, autoikaskuntza zentroek C2 atalean ezarritako irizpideen arabera 2024ko martxoaren 31ra arte izan dituzten autoikaskuntza-matrikula guztiak honako hauek dira: 5.005.

Hala ere, berariazko kontratazio bakoitzaren baldintza teknikoen agiriak dagokion eremuaren datuak jasoko ditu, eta baita ere esleitzekoak diren eskola-ordu guztiak, hau da, une bakoitzean esleituko diren eskola-ordu guztien eta ESDaren une horretara arte esleitu direnen batura.

Gaitasuna egiaztatzeko kanpoko baliabideak erabiltzea: Kontratazio honetan eskatutako gaitasuna egiaztatzeko, enpresa lizitatzaileek beste enpresa batzuen gaitasuna edo baliabideak erabili ahal izango dituzte, betiere kontratua egiteko debekurik ez badute, enpresa horiekin duten lotura juridikoa dena dela, eta betiere kontratuaren gauzapen-aldi osoan baliabide horiek erabiltzeko aukera badute.

4.7.- Edozein kasutan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan izena ematean, ESDra atxikitzeko eskatu duen lizitatzaileak behar bezala egiaztatu beharko ditu, bertan islatzen denaren arabera, eta kontrakoa frogatu ezean, enpresaburuaren gaitasun-baldintzak, bere nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari eta lanbide- edo enpresa-gaikuntzari dagokienez, kontratatzeko debekurik ez duela ere egiaztatu beharko du.

5.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA *(SPKLren 100. artikulua)*

5.1.- ESD EZARTZEA: SPKLren 100.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskuratze-sistema dinamiko hau ezarri aurretik **ez da beharrezkoa izango** lizitazioaren oinarrizko aurrekontua onartzea. Gastuaren baimena eta dagokion aurrekontuaren-erreserba ESDaren ezarpena izapidetzen den bitartean edo ezarri ondoren izapidetu ahal izango da, berariazko kontratazio guztiarentzat, edo, baita ere, modu bereizituan, eratorritako kontratazioaren lizitazio bakoitzerako.

5.2.- ERATORRITAKO BERARIAZKO KONTRATAZIOA: Kontratazio-organoak, ESD honen esparruan berariazko kontratazio-espedienteak onartzen dituenean eta bere adjudikazio-prozedurak hasteko agintzen duenean, lizitazio bakoitzaren oinarrizko aurrekontua onartu beharko du, gastuaren izaeraren araberako aurrekontu-aplikazio egoki eta nahikoaren kargura, aurretiaz baimenduta ez badago.

Eratorritako berariazko kontratazio bakoitzaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua zehaztuko da lizitatutako ikastaro bakoitzaren iraupen-aurreikuspenari eskola-ordu bakoitzeko bakarkako prezioak aplikatuz, edo, 2. kategoriako ikastaroetan, autoikaskuntza-ikastaroaren matrikula prezioa ikasle kopuruarekin biderkatuz.

Sorta edo ikastaro bakoitzaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua gainditzen duten eskaintzak ez dira onartuko eta lizitaziotik kanpo utziko dira.

5.3.- Eratorritako kontratuen lizitazio-ondorioetarako finkatutako unitate-prezioetan, eta aurkeztutako proposamen ekonomikoetan eta adjudikazio-zenbatekoan, esleipendunari berariazko kontratuak sor diezazkiokeen gastu guztiak sartuta daudela ulertzen da.

6.- AURREKONTU-KREDITUA *(SPKLren 35.1 artikulua)*

Eratorritako kontratazioetatik eratorritako betebehar ekonomikoei erantzuteko behar den aurrekontu-kreditua honako aurrekontu-partida honetan zordunduko da:

Zentro kudeatzailea	Aurrekontu-partida	Proiektuaren egituraren plana
2024401100	1.47130.23700	19004470

7.- ESDtik ERATORRITAKO KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA *(SPKLren 101. artikulua)*

7.1. SPKLren 101.13 artikuluaren arabera, ESD honetatik eratorritako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsia (BEZ kanpo) 2.800.000 eurotakoa da, ESDaren iraupen osorako eta agiri honetako 10.2 klausulan aurreikusitako 5 hilabeteko luzapena barne delarik. 2.500.000 € 1. kategoriarako eta 300.000 € 2. kategoriarako.

7.2.- Gehieneko balio estimatua zehazteko erreferentziatzat hartu dira HABEk azken 3 urteetan kontratatutako ikastaroak, I. eranskineko terminoetan.

7.3.- Aurreko ataletan xedatutakoarekin bat etorriz, balio estimatua kalkulatzeko kontuan hartutako zerbitzuen zenbateko osoa ez da izango HABEk zerbitzuak eskuratzeko hartzen duen konpromisoa, baizik eta ESDak lortu dezakeen dimentsioari buruzko orientazio-erreferentzia lizitatzaileentzat. Ondorioz, balio horretatik ez da inolako betebeharrik sortuko HABErentzat, eta prestazioen esleipena eta betearazpena bakar-bakarrik eskuratzailearen beharren menpe egongo da.

8.- ERATORRITAKO KONTRATUAREN PREZIOA *(SPKLren 102. artikulua)*

8.1.- Berariazko kontratu bakoitzaren prezioa eratorritako kontratazioa egin ondoren adjudikaziotik ateratzen dena izango da, eta BEZa partida independente gisa jasoko da.

8.2.- Lizitazioaren xede diren zerbitzuetarako gehieneko prezio unitarioak hauek izango dira, BEZa kanpo:

1. KATEGORIAKO PREZIOAK:

8.2.1. AURREZ AURREKO IKASTARO JARRAITUAK

8.2.1.- Kontratistaren lokaletan emango diren ikastaroak: 95,23 euro talde/ordua.

8.2.2.- Administrazioaren lokaletan emango diren ikastaroak: 86,65 euro talde/ordua.

8.2.2. AURREZ AURREKO IKASTARO EZ JARRAITUAK EDO ETENAK

8.2.2.1.- Kontratistaren lokaletan emango diren ikastaroak, baldin eta antolamendua dela-eta irakasle berberak ezin badu ikastaro eten bat baino gehiago eman:184,29 euro talde/ordua.

8.2.2.2.- Kontratistaren lokaletan emango diren ikastaroak, baldin eta antolamendua dela-eta irakasle berberak bi ikastaro eten eman ahal baditu: 115,15 euro ordu/taldeko.

8.2.2.3.- Kontratistaren lokaletan emango diren ikastaroak, baldin eta antolamendua dela-eta irakasle berberak hiru ikastaro eten eman ahal baditu: 109,85 euro talde/ordua.

8.2.2.4.- Administrazioaren lokaletan emango diren ikastaroak, baldin eta antolamendua dela-eta irakasle berberak ezin badu ikastaro eten bat baino gehiago eman: 167,81 euro ordu/taldeko.

8.2.2.5.- Administrazioaren lokaletan emango diren ikastaroak, baldin eta antolamendua dela-eta irakasle berberak bi ikastaro eten eman ahal baditu: 104,87 euro ordu/taldeko.

8.2.2.6.- Administrazioaren lokaletan emango diren ikastaroak, baldin eta antolamendua dela-eta irakasle berberak hiru ikastaro eten eman ahal baditu:100,66 euro ordu/taldeko.

2. KATEGORIAKO PREZIOAK:

8.2.3.1.- Bederatzi hilabeteko ikastaroak (190 ordu): 2342,90 € /ikasle/ikastaroko
8.2.3.2.- Hiruhilabeteko ikastaroak (75 ordukoak): 924,93 € /ikasle/ikastaroko
8.2.3.3- Beste iraupen bateko ikastaroen ordu bakoitzeko prezioa, tutoretza-saioak eta mintza-saioak modulu estandarren proportzioan barne direlarik: 12,33 €

8.3.- Prezioak gehienekoak dira. Horrenbestez, horiek gainditzen dituzten eskaintzak baztertu egingo dira.

8.4.- Aipatutako gehieneko prezioak berdintzen dituzten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte eskaintza ekonomikoa baloratzeko atalean, berariazko kontratuen adjudikazio-irizpideen klausulan jasota dagoen bezala.

8.5.- Kontratuaren prezioan sartuko dira kontratuaren betearazpena zergapetzen duten tasa eta zerga guztiak, zuzenekoak nahiz zeharkakoak.

Kontratuaren prezioan sartuko dira, halaber, kontratua betetzeko beharrezkoak diren gastu guztiak, balizko joan-etorrienak barne.

9.- ERATORRITAKO KONTRATUAREN PREZIOA ETA BESTE ALDAKETA BATZUK BERRIKUSTEA
(SPKLren 102.6 art., 103 art. eta hurrengoak eta 301.2 art.)

Zerbitzuaren nolakotasuna kontuan hartuta, eta SPKLren 103.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, berariazko kontratu bakoitzaren prezioa ezin izango da berrikusi.

10.- ESD-AREN INDARRALDIA, IRAUPEN-EPEA ETA ESD-TIK ERATORRITAKO KONTRATUAK GAUZATZEKO EPEA *(SPKLren 223., 224. eta 29. artikuluak)*

10.1.- ESDaren indarraldia:

ESDaren indarraldia bat etorriko da sinatzen den egunaren eta 2025eko uztailaren 31ren arteko denbora-tartearekin.

Edonola ere, HABEko zuzendaritzak ESDa edozein unetan amaitutzat emateko edo hura ez erabiltzeko eskubidea izango du.

10.2.- ESD honen epemuga luzatua izan daiteke beste epealdi batez edo gehiagoz, baina onartutako luzapenek ezingo dute, guztira, 5 hilabeteko epea gainditu.

10.3.- Eratorritako berariazko kontratuen iraupen-epea *(SPKLren 29. artikulua):*

ESD honen indarraldian, edo hala badagokio, onartutako luzapenean edo luzapenetan bakarrik esleitu ahal izango dira berariazko kontratuak ESDaren babesean. Betekizun hori betetzat joko da berariazko kontratuaren esleipen-epea ESDaren amaiera-data baino lehenagokoa bada.

ESDaren esparruko berariazko kontratuen iraupen-epea bereizita egongo da ESDaren ezarpenaren iraupenetik, eta SPKLren 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera arautuko da, eta, edonola ere, 2025eko abenduaren 31aren aurretik bukatuko da, salbu eta ESDaren indarraldia luzatzen bada. Kasu

horretan, berariazko kontratuen iraupen-epea kontratu bakoitzarentzat bere lizitazioa eta adjudikazioa arautzen dituen baldintza teknikoen agirian ezarritakoa izango da.

10.4.- Berariazko kontratuen xede diren zerbitzuen betearazpen-epea *(SPKLren 210. eta 300. artikuluak)*

ESD honen esparruan egindako berariazko kontratuen xede diren zerbitzuak egikaritzeko epea behar bezala zehaztuko da baldintza teknikoen agiriak eta berariazko kontratazioa esleitzeko prozedura onartzeko ematen den ebazpenean eta baita berariazko kontratua esleitzeko ebazpenean ere.

10.5.- Zerbitzuak behin betiko jasotzeko epea kontratazio-organoak berak ezarriko du baldintza teknikoen agiri bakoitzean.

10.6.- Ikastaroak berariazko kontratuarentzat onartutako baldintza teknikoen agirian ikastaro bakoitzarentzat adierazitako lekuan emango dira.

II.- I. FASEA – ESKURATZE SISTEMA DINAMIKOA EZARTZEA: HAUTAGAIAK HAUTATZEA

11.- ATXIKIPEN-ESKAERAK

11.1.- Fase honetan, sistema honetan interesa duten enpresen atxikipen-eskaeren hasierako aurkezpena egingo da, eta eskaera horietan zehaztuko da, baldintza-agiri honetan zedarrituriko zerbitzuen artean, zein kategorian edo kategorietan onartua izatea eskatzen duen enpresa bakoitzak. ESDra atxikitzeko eskaera horrekin batera, baldintza-agiri honen 14. klausulan adierazitako gaitasun-betekizunak eta kaudimen-irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar da.

11.2.- Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKOA izango da, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko argitalpenen bulegora bidaltzen den egunetik aurrera kontatzen hasita.

11.3.- Parte hartzeko eskaerak aurkezteko hasierako epe hori amaitu ondoren, Kontratazio Mahaia hautagaiak ebaluatzen hasiko da agiri honen 14. klausulan aurreikusitako terminoetan, eta enpresaburuaren gaitasun- eta kaudimen-betekizunak kontuan hartuta.

Parte hartzeko eskaerak ebaluatzeko epea HAMAR (10) EGUN BALIODUNEKOA izango da gehienez. Epe hori beste HAMABOST (15) EGUN BALIODUN luzatu ahal izango da, SPKLren 225.3 artikuluaren bigarren atalaren arabera.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, eta 225.3 artikuluan “in fine” xedatutakoa kontuan hartuta, ESDaren esparruan lehen berariazko kontrataziorako gonbidapena bidaltzen ez den bitartean, kontratazio-organoak berriz ere luzatu ahal izango du ebaluaziorako epea. Eskaerak baloratzeko erabilitako denbora horretan zehar, kontratazio-organoak ezingo du bidali eskaintzak aurkezteko inongo gonbidapenik.

Edonola ere, parte hartzeko eskaerak ebaluatzeko aldia amaitu bitartean, ezin izango da egin eratorritako lehen kontrataziorako gonbidapenik.

11.4.- Ebaluazioa amaitzean, Kontratazio-Mahaiak dagokion proposamena bidaliko dio kontratazio-organoari, eta hark ebazpena emango du kategoria bakoitzean onartutako lizitatzaileen hasierako zerrenda onartuz. Hautagaiei emaitza horren berri emango zaie, gehienez ere, ZAZPI (7) EGUN BALIODUNEKO epean, EAEko Kontratazio Publikoaren Plataformako ESDaren lizitazio-plataformaren bidez, betiere 16. klausulan eta SPKLren 225.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

11.5.- 11.2 atalean adierazitako hasierako epeari kalterik egin gabe, interesa duten operadoreek ESD honetara atxikitzeko eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte haren indarraldian zehar; halakoetan, hamar (10) egun balioduneko epea zenbatzen hasiko da aurkeztutako hautagai berri bakoitza ebaluatzeko, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera berriak aurkezten badira, termino berberetan ebaluatu eta ebatziko dira, eta ESDari atxikitako enpresen zerrenda eguneratuko da berriekin.

12.- I. FASEAN PARTE HARTZEKO ESKAERAREN AURKEZPENA

12.1.- ESD honetan parte hartzeko eskaerak 13. klausulan ezarritako dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira, EAEko Kontratazio Publikoaren Plataformako ESDaren lizitazio-plataformaren bidez: https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

EZ da onartuko ESDaren lizitazio-plataformaren bidez elektronikoki aurkezten EZ den eskaerarik edo agiririk.

12.2.- Enpresa bakoitzak ESDan parte hartzeko eskaera bat aurkeztu ahal izango du, baldintza-agiri honetan zehaztutako produktu-kategoria batean edo gehiagotan. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta ESDa parte-hartze berrietara etengabe irekita dagoenez, enpresak atxikipen-eskaera aldatu eta gainerako kategorietara aurkeztu ahal izango dira, ESDa indarrean dagoen edozein unetan.

Bakarrik aurkeztutako enpresek ezin izango dute aldi baterako enpresa-elkarteetan edo elkarlanean beste eskaerarik izenpetu. Era berean, ezin izango du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan parte hartu. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako eskaera bakar bat ere.

ESD honetara atxikitzeko eskaera aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen dela baldintza-agiri honetako klausulen eduki osoa.

12.3.- Lizitatzaileen eta kontratazio-organoaren arteko komunikazioak eta jakinarazpenak elektronikoki bakarrik egingo dira, ESDaren lizitazio-plataformaren bidez (EAEko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez), eta une oro bermatuko dira lehia askea, diskriminaziorik eza eta prozedura horretarako sarbide-murrizketarik eza.

Informazio gehigarria eta kontsultak: ESDan parte hartu nahi duten pertsonek baldintza-agiriak eta dokumentazio osagarria aztertu ahal izango dituzte Euskadiko Kontrataziorako Plataforman eta ESDaren lizitazio-plataforman. Informazio gehigarria eskatu eta kontsultak egin ahal izango dituzte baldintza-agiriei dagokienez, gutxienez atxikipen-eskaerak aurkezteko lehenengo epea (30 egunekoa) amaitu baino HAMAR (10) EGUN lehenago.

Hasierako epe hori amaitzean, eta sistema enpresa berriak sartzeko etengabe irekita dagoela kontuan hartuta, ESDra atxikitzeko interesa duten hautagai berriek edozein unetan egin ahal izango dituzte kontsultak. Kontsultei SDAren lizitazio-plataformaren bidez formulatu ondorengo BOST (5) egunetan erantzun beharko zaie.

Administrazio-klausula berezien agiriari edo gainerako dokumentazioari buruzko zalantzak argitzeko eskaerei edo kontsultei emandako erantzunak lotesleak izango dira, eta EAEko Kontratazio Publikoaren Plataformako ESDaren plataforman argitaratuko dira, lizitatzaileen tratu-berdintasuna bermatzeko helburuarekin.

ESD lizitatzeko plataformaren funtzionamenduari buruzko kontsultak haren laguntza-zerbitzuari egingo zaizkio, 945016298 telefono-zenbakira deituta.

12.4.- Enpresa eskatzaileak izango dira aurkeztu dituzten dokumentuen egiazkotasunaren erantzule. Gaitasunari edo kaudimenari buruzko edozein datu faltsutzea kontratatzeko debekuaren arrazoi izango da, SPKLren 71.1.e) artikuluaren arabera.

13.- I. FASEAN PARTE HARTZEKO ESKAERAREN EDUKIA

ESD honetan parte hartzeko eskaerak eta horiekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKAR BATEAN** aurkeztuko dira. ESDan parte hartu nahi duten pertsonek edo haien ordezkariek elektronikoki sinatuta egongo da, eta eduki hau izango du:

IZENBURUA: I. FASEAN parte hartzeko eskaera egiteko dokumentazio orokorra:
ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKOAREN EZARPENEAN PARTE HARTZEKO ESKAERA (ESPEDIENTE ZK: G24/202), EUSKARA-IKASTAROAK EMATEKO HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREKIN (HEOC) BAT ETORRIZ

13.1.- EDUKIA:

1.- Eskuratze-sistema dinamikoan parte hartu nahi duen pertsonaren datuak, II. ERANSKINEKO edukiarekin bat etorriz: helbide osoa, telefono-zenbakia eta harremanetarako pertsona, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren hirugarrenen datu-baseko alta edo alta emateko eskaera. ESDan parte hartu nahi, baina aipatutako ekonomia- eta kontabilitate-informazioko sisteman erregistratuta ez dauden pertsonek ezin izango dute zerbitzu-eskaerarik jaso, eta, beraz, ordainketarik ere ez.

2.- ESDra atxikitzeko eskaera, zein kategoriatan parte hartu nahi duen adierazita. Horretarako, ESDaren lizitazio-plataforman edo EAEren kontratazio-publikoko plataforman https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/ formularioa beteko dute, eta huraxe izango da erantzukizunpeko adierazpena. III. ERANSKINA

3.- Jarduteko gaitasuna eta ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioa.

ESDan parte hartu nahi duten enpresek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute, baldin eta aurretiaz HABEn entregatu ez badute:

3.1.- Pertsona juridikoek beren jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen eraketa-eskritura edo, hala badagokio, aldaketen eskritura, estatutuak edo sortze-egintzaren agiria, pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan inskribatua.

Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak diren enpresek, SPKLren 84.2 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera egiaztatuko dute jarduteko gaitasuna.

3.2.- Ahalordetzea: baldin eta eskaintza edo parte hartzeko eskaera sinatzen duen pertsona ez bada bere izenean ari, edo lizitatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, sinatzaileak berariazko ahalorde askietsia aurkeztu behar du. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, botere horrek behar bezala inskribatuta egon beharko du dagokion erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera aplikatu behar zaion araudiari jarraikiz inskribatzea beharrezkoa bada.

3.3. Aldi baterako enpresa-elkartea: ESD honetan aldi baterako enpresa-elkarte bateko enpresek parte hartzea eskatzen badute, enpresa horietako bakoitzak, klausula honetan eskatutako agiriez gain, «aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoaren» idazkia aurkeztu beharko du ESDaren esparruan berariazko kontratu baten adjudikaziodun izanez gero. Idazki horretan, honako datu hauek adieraziko dira: enpresa-elkartea sinatu duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren parte-hartzea, eta pertsona bat izendatuko da enpresa-elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar gisa; pertsona horrek eskubideak baliatzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betearazteko ahalmena izango du kontratua iraungi arte. Hala ere, enpresek zenbateko esanguratsuak kobratzeko eta ordaintzeko ahalmen mankomunatuak izan ahalko dituzte.

Gainera, prozedura honetan ABEE gisa parte hartzen duten enpresek ABEE moduan eman beharko dute alta ESDaren lizitazio-plataforman.

3.4 Elkarlanean aurkezten diren enpresek, pertsona juridikoek aurkeztu behar dituzten agiriak eta ahalordetza berberak aurkeztu beharko dituzte.

4.- Kaudimena egiaztatzeko dokumentazioa.

Gaitasun teknikoko baldintzak ofizioz egiaztatuko ditu HABEk.

Aldi baterako enpresa-elkartearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa zehazteari dagokionez eta eragin horietarako, parte-hartzaile bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira.

Era berean, SPKLren 95. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazio kontratatzaileak argibideak eskatu ahal izango ditu kaudimena egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioaren inguruan, edo beste agiri osagarri batzuk aurkezteko eskatu ahal izango du.

Beste enpresa batzuen bitartekoak eta kaudimena erabiliko dituzten enpresa lizitatzaileek enpresa horiek sinatutako konpromiso-idazkia aurkeztu beharko dute.

5.- Kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kontratatzeko debekurik ez izatea egiaztatzen duten dokumentuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 85. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera (III. ERANSKINEKO 3. atala).

6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzearen egiaztagiriak:

Sektore publikoarekin kontratatzeko zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen ziurtagiria eta sektore publikoarekin kontratatzeko Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotearena. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

7. Talde berekoak diren enpresek baldintza hori egiaztatzen duen agiria eta taldea osatzen duten bazkideen zerrenda aurkeztu beharko dituzte, III. ERANSKINEKO 5. atalean adierazitako edukiarekin bat etorriz

Ulertuko da talde berekoak direla Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan jasotzen diren egoeraren batean izan eta ESDan parte hartzeko eskaera desberdinak aurkezten dituztenak, banaka nahiz taldekoak ez diren beste enpresa batekin edo batzuekin ABEEtan elkartuta.

8.- Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ROLECE) eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean (ROC) inskribatuta egotea: Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ROLECE) edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataformako Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkezten bada, ez dira aurkeztu behar izango jarduteko gaitasuna eta ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak eta kontratua egiteko debekua ez izatearen agiria, ezta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatearen ziurtagiria ere (betiere datu horiek aurkeztutako ziurtagirian jasota badaude).

14.- I. FASEKO KONTRATAZIO-MAHAIA

14.1.- Parte hartzeko eskaerak aurkezteko hasierako epea amaitu ondoren edo, hala badagokio, ESDaren indarraldian zehar hautagaitzak aurkeztu eta hurrengo 10 egun baliodunetan ebaluatuko dira hautagaitzak.

Hautagaitzak HABEren kontratazio-mahaiak ebaluatuko ditu.

14.2.- Epe hori beste HAMABOST (15) EGUN BALIODUN luzatu ahal izango da, eta, kontratazio-organoak ezarritako ondorengo beste epealdi baten bitartez ere, SPKLren 225.3 artikuluaren bigarren eta hirugarren ataletan xedatutakoaren arabera. Edonola ere, hautagaitzak ebaluatzeko aldia amaitu bitartean, ezin izango da egin eratorritako lehen kontrataziorako gonbidapenik.

14.3.- Kontratazio-mahaia izango da enpresa hautagaiek I. fasean parte hartzeko ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKARREAN aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzeko organo eskuduna, eta, hala badagokio, berak proposatuko du hautagaien onarpena, edo kasua bada, fase horretan onartzeko aldez aurretiko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez duten hautagaiak ez onartzea.

14.4.- Kontratazio-mahaiak osaera iraunkorra izango du ESDa indarrean dagoen bitartean, eta kontratazio-organoak izendatutako kide hauek osatuko dute:

- Presidentetza: HABEko Zerbitzu Orokorren arduraduna. Ordezkoa: HABEko Didaktikako zerbitzuburua

Hiru mahaikide:

- HABEko Didaktikako zerbitzuburua. Ordezkoa: Ikuskatzailetza Arloko teknikaria.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria.
- Ondare eta Kontratazio zuzendaritzako ordezkaria

-Idazkaritza: HABEko Aholkularitza Juridikoko arduraduna. Ordezkoa: Aholkularitza juridikoaren teknikaria.

Kontratazio-mahaiak aholkua eskatu ahal izango die, kontratazio-organoak baimena eman ondoren, kontratuaren xedearekin lotura duten gaietan ezagutza egiaztatua duten teknikari edo aditu independenteei.

14.5.- Dokumentazio orokorraren kalifikazioa eta ESDan onartzeko proposamena *(SPKLren 141.2 artikulua).*

ARTXIBO ELEKTRONIKO BAKAR horretan aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak antzemanez gero, kontratazio-mahaiak dagokion hautagaiari jakinaraziko dio, ESDaren lizitazio-plataformaren (EAEko Kontratazio Publikoaren Plataforma) bidez. Jakinarazpen hori utziko du espedientean, eta HIRU (3) EGUNeko epea emango dio interesdunari akatsak zuzen ditzan kontratazio-mahaiaren aurrean .

Hala ere, ESDra aurkeztutako enpresa hautagai baten dokumentazioak funtsezko akatsak edo zuzendu ezin diren akats materialak baditu, ESDra atxikitzeko eskaera ez da lizitaziora onartuko.

Mahaiak uste badu aurkeztutako dokumentazioaren edo adierazpenen indarraldiari edo fidagarritasunari buruz arrazoizko zalantzak daudela, ESDra aurkeztutako enpresen onespenari buruzko erabakia eman aurretik, dagozkion egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die eragindako pertsona lizitatzaileei.

Enpresa hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, mahaiak ESDra aurkeztutako enpresen onarpen-proposamena egingo du, agiri honetan definitutako zerbitzu-kategoria bakoitzean; era berean, onartu ez direnak eta, dagokionaren arabera, ez onartzeko arrazoiak jakinaraziko ditu, egindako proposamena dagokion aktan adieraziz. Horren ondoren, kontratazio-mahaiak egokitzat jotzen duen proposamena jasotzen duen akta kontratazio-organoari helaraziko dio.

Kontratazio-mahaiak edo -organoak lizitazio honi buruzko egitate edo zantzu guztiak jakinaraziko dizkio Lehiaren Euskal Agintaritzari (AVC/LEA), lehiaren defentsarako legeria urratu badezakete. Bereziki akordio, erabaki edo gomendio kolektiboen zantzu oro, edo lizitatzaileen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jarduera oro jakinaraziko diote, haien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea izan badaiteke, SPKLren 132. eta 150. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Enpresen aldi baterako elkartean (ABEE) multzokatuta lehiatzen diren enpresen artean kolusio-zantzuak daudenean, kontratazio-mahaiak edo -organoak enpresa horiei eskatuko die SPKLren 69. artikuluarekin bat etorriz, berariaz eta arrazoituta azaldu dezatela zergatik lehiatzen diren multzokatuta. Lehiaren Euskal Agintaritzari (AVC/LEA) jakinaraziko zaizkio enpresen justifikazioak aztertu eta gero arrazoitutako kolusio-zantzuak dituztela ondorioztatu diren kasuak. Halaber, kautelazko moduan Lehiaren Euskal Agintaritzari (AVC/LEA) jakinaraziko zaizkio baita ere hasiera batean kolusio-zantzurik ez izan arren, merkatuaren gehiengoa barne hartzen duten akordioak, bai akordioaren xedea dela-eta, bai eta horietan parte hartzen duten subjektuak direla-eta.

15.- <u>ESKURATZE SISTEMA DINAMIKOA ONARTZEA</u> *(SPKLren 224.2, 225.4 eta 224.1 artikuluak)*

Kontratazio-mahaiak egindako proposamena berrikusi ondoren, kontratazio-organoak eskuratze-sistema dinamikoa ezartzeko dagokion ebazpena emango du. Ebazpen horretan, ESDan onartutako erakunde guztiak, onartu ez direnak eta ez onartu izanaren arrazoiak jasoko dira, dagokion moduan, SPKLren 224.2 artikuluaren arabera. Sisteman onar daitezkeen hautagaien kopurua mugatu ezin daitekeenez, hautaketa-irizpideak betetzen dituzten eskatzaile guztiak onartuko dira.

Ebazpena EAEko Kontratazio Publikoaren Plataformako kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta ESDaren lizitazio-plataformaren bidez jakinaraziko zaie ESDra atxikitzeko eskaera egin zuten enpresei, gehienez ere ZAZPI (7) EGUN BALIODUNEKO epean, SPKLren 225.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

III.- II. FASEA
BERARIAZKO KONTRATAZIOAK ESKURATZE-SISTEMA DINAMIKOAREN ESPARRUAN

16.- <u>BERARIAZKO KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA</u>

Fase honen barnean daude Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) arabera, euskara-ikastaroak emateko gauzatu behar diren zerbitzuen lizitazioa, adjudikazioa eta eskuratze eraginkorra, eta I. fasean dagokien kategorian onartuak izan diren enpresen artean egiten da.

SPKLren 224.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, ESD honen esparruan kontratatzeko, kontratazio-organoak prozedura murriztuaren arauei jarraituko die, SPKLren II. liburuko I. tituluko II. kapituluko 3. atalean ezarritako berezitasunekin.

17.- <u>LIZITAZIO-PROZEDURA</u>

ESDan dagokion kategorian edo kategorietan onartuak izan ondoren, atxikitako enpresei gonbidapena egingo zaie proposamena ondorengo berariazko kontratazioetara aurkezteko, baina inoiz ez atxikipenaren unean abian daudenetara.

ESDaren esparruan esleitu nahi den kontratu bakoitzari berariazko lizitazioa egingo zaio kategoria bakoitzean onartutako parte-hartzaileen artean, honako prozedura honen arabera:

1) Gonbidapenak bidali
2) Proposamenak aurkeztu
3) Proposamenak baloratu
4) Berariazko kontratuen esleipena eta gauzatzea

18.- <u>ESLEIPEN-IRIZPIDEAK ETA BERORIEN HAZTAPENA</u> (*SPKLren 145., 146. eta 147. artikuluak*)

18.1.- SPKLren 145.2 artikuluari jarraikiz, ESD honetatik eratorritako berariazko kontratuen esleipen-irizpideek eskaintzen kalitate-prezio onenaren konbinazioa osatuko dute.

Berariazko kontratuak adjudikatzeko erabiliko diren aplikazio automatikoko irizpideak hauek izango dira:

- **ESKAINTZA EKONOMIKOA: gehienez 49 puntu**

Ikastaro horien eskaintza ekonomikoak baloratzeko formula hau aplikatuko da:

$$\text{Eskuratutako puntuazioa} = \frac{\text{PBL-Of}}{\text{PBL-Oe}} \times 49$$

Non:
PBL- lizitaziorako oinarrizko prezioa
Of = baloratu beharreko eskaintza
Oe= eskaintzarik merkeena

8. KLAUSULAN EZARRITAKO GEHIENGO PREZIOAK BERDINTZEN DITUZTEN ESKAINTZA EKONOMIKOEK 0 PUNTU ESKURATUKO DUTE ATAL HONETAN.

- KALITATEA: 51 puntu

1. Kategoria: aurrez aurreko ikastaroak

- Irakasle bakoitzak 2015-2016 ikasturtetik aurrera, hau da, 2015eko urriaren 1etik aurrera, Pertsona Helduei Euskara Irakasteko HABEren Oinarrizko Curriculumaren araberako eskarmentua: 4 puntu 100 ordu bakoitzeko. Esleipen-ondorioetarako, kaudimen gisa exijitutako eskarmentuaren gainetik duena bakarrik baloratuko zaio irakasle bakoitzari. Hala bada, 24 puntu emango dira.
-Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) arabera sortutako material didaktikoak eskuragarri izatea. Hala bada, 24 puntu emango dira.
- Paper birziklatua erabiltzea material didaktikoetan. Hala bada, 3 puntu emango dira.

2. kategoria: autoikaskuntza-ikastaroak

- Irakasle bakoitzak 2015-2016 ikasturtetik aurrera, hau da, 2015eko urriaren 1etik aurrera, Pertsona Helduei Euskara Irakasteko HABEren Oinarrizko Curriculumaren araberako eskarmentua: 4 puntu 100 ordu bakoitzeko. Esleipen-ondorioetarako, kaudimen gisa exijitutako eskarmentuaren gainetik duena bakarrik baloratuko zaio irakasle bakoitzari. Hala bada, 27 puntu emango dira.
- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) arabera sortutako material didaktikoak eskuragarri izatea. Hala bada, 24 puntu emango dira.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legearen babesean, eta bere garapenean onartutakoaren araudiaren arabera, HABEk egiten duen ikas-irakaskuntza prozesuen jarraipenaren baitan gauzatutako eskarmentuaren arabera baloratuko du HABEk, ofizioz, proposatutako irakasleen eskarmentua.

18.2. Eskaintzak aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera baloratu ondoren, lizitazio bakoitzaren azken puntuazioan berdinketaren bat gertatuz gero, berdinketa hausteko zozketa egingo da puntuazio berbera eskuratu duten lizitatzaileen artean, sailkapenaren ordena erabakitzeko. Ez da egongo esleipenaren ondorioetarako sorten aurretiazko lehentasun-zerrendarik.

19.- II. FASEKO PROPOSAMENEN AURKEZPENA (*SPKLren 136., 137., 138., 139. eta 225. artikuluak)*

19.1.- Gonbidapena bidaltzea: Berariazko lizitazio bakoitzean, kontratazio-organoak esleipen-prozedura hastea eta baldintza teknikoen agiriak onartuko ditu, eta ESDaren lizitazio-plataformaren bidez eskaintza bat aurkezteko gonbidapena egingo zaio aurrez dagokion kategorian onartu diren enpresa guztiei.

Enpresa horiek gonbidapen horren jakinarazpena jasoko dute plataforma horretan erregistratzeko prozesuan eman duten helbide elektronikoaren bidez.

Gonbidapen bakoitzean, kontratazio-organoak berariazko lizitazioaren xedea, epea eta tokia zehaztuko ditu, baita lizitazioaren gehieneko prezioa ere.

19.2.- Proposamenak aurkeztea: Proposamenak EAEko Kontratazio Publikoaren Plataforman aurkeztuko dira, ESDaren lizitazio-plataformaren bidez (https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/), baldintza-agiri honen 21. klausulan adierazitako edukiarekin, gonbidapenean adierazitako epean eta hurrengo apartatuen arabera.

Proposamenak gonbidapenean adierazitako epean aurkeztuko dira, baina epea ez da, inola ere, HAMAR (10) EGUN NATURAL baino txikiagoa izango, gonbidapena bidali den egunetik zenbatzen hasita.

Lizitazio-prozedura bakoitzaren esparruan egiten diren jakinarazpen guztiak ESDaren lizitazio-plataformaren bidez egingo dira. Lizitatzaileen eta kontratazio-organoaren arteko komunikazioak eta jakinarazpenak formatu elektronikoan bakarrik egingo dira, une oro lehia askea, diskriminaziorik eza eta prozedura horretarako sarbidea ez murriztea bermatuz. Informazio gehigarria eta kontsultak: ESDaren lizitazio-plataformaren bidez, lizitatzaileek galderak egin, argibideak eskatu eta lizitazioari buruzko erantzunak jaso ahal izango dituzte. Lizitatzaileek egindako galderei emandako erantzunek izaera loteslea dute eta plataforman argitaratuko dira, lizitatzaileek prozeduran tratu-berdintasuna dutela bermatzeko.

ESD honen esparruan egindako berariazko kontratu baten lizitazio bakoitzean, lizitatzaileek kontsultak aurkeztu ahal izango dituzte, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino BOST (5) EGUN NATURAL lehenagora arte.

Dagokion kontratazio-organoak eskatutako kontsultari buruzko informazioa edo erantzuna emango die interesdun guztiei lizitazio-prozeduran, baina gehienez ere proposamenak aurkezteko epea amaitu baino HIRU (3) EGUN NATURAL lehenago.

19.3.- Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu ahal izango du lizitazioarekin lotutako sortaren xedeari dagokionez, eta ezin izango da aldaerarik edo alternatibarik aurkeztu.

19.4.- Lizitazioa beste enpresaburu batzuekin aldi baterako enpresa-elkarte gisa egin duten enpresaburuek ezin izango dituzte aldi berean proposamenak banaka aurkeztu, eta ezin izango dute lizitazioan parte hartzen duten enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu; ez eta beste enpresa batekin edota batzuekin elkarlanean aurkezten badira ere.

19.5.- Lizitatzaileren batek aurreko ataletan ezarritako debekuren bat badu, ez da hark sinatutako proposamen bakar bat ere onartuko.

19.6.- Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako eta kontratazio-organoak onartutako baldintza teknikoen agiriko klausula eta baldintza guztiak, inolako salbuespenik gabe. Era berean, horrek esan nahi du kontratazio-mahaiari eta -organoari baimena ematen zaiela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edota Europar Batasuneko estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasota dauden datuak kontsultatzeko.

19.7.- Prozedura hau izapidetzean eta kontratuaren adjudikazioa egin ondoren enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa azkentzen bada beste batekin bat egin duelako, zatitu egin delako edo bere enpresa-ondarea edo bere jardueraren adar bat eskualdatu egin duelako, prozeduran bere lekua hartuko du sozietate xurgatzaileak, alegia, bat-egitearen ondoriozkoak, zatiketaren onuradunak edo ondarearen

edo jarduera-adarraren eskuratzaileak, betiere kontratatzeko ahalmena baduela eta horretarako debekurik ez duela egiaztatzen badu eta dagokion kategorian eskatutako kaudimena baduela frogatzen badu.

19.8.- Behin-behineko bermea: *(SPKLren 106.1. artikulua).*
SPKLren 106.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresa lizitatzaileek ez dute behin-behineko bermerik eratu beharko.

20.- <u>PROPOSAMENEN EDUKIA</u> (*SPKLren 140. artikulua*)

Proposamenek agiri bakarra izango dute eta bertan jasoko da B ARTXIBOA eta jarraian adierazten diren artxiboak izango ditu, lizitatzaileak edo haren ordezkariak elektronikoki sinatuta.

B GUTUN-AZALA EDO ARTXIBOA.

IZENBURUA: <u>Eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatzekoak diren irizpideak</u>, HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRICULUMAREN ARABERA (HEOC) EUSKARA-IKASTAROAK EMATEKO ZERBITZUAREN BERARIAZKO KONTRATAZIORAKO ESD-TIK eratorritako lizitaziorako

EDUKIA: III.1 ERANSKINA

Lizitatzaileek ESDaren lizitazio-plataformaren bidez bakarrik bidaliko dute beren eskaintza ekonomikoa, eta ESDtik eratorritako berariazko kontratu bakoitzean parte hartzeko gonbidapenaren eranskin gisa agertuko den eredura egokituko da.

Eskaintza ekonomikoak ez du gaindituko berariazko kontratazioari dagokion kontratazio-organoak egindako eskaintza-eskaeran ezarritako lizitaziorako oinarrizko aurrekontua.

ESD honetan onartutako lizitatzaileek aurkeztutako proposamen ekonomikoetan, kontratua zergapetzen duten tasa eta zerga guztiak sartzen dira, zuzenekoak nahiz zeharkakoak, baita udalarenak ere; horiek guztiak kontratistak berak ordaindu beharko ditu.

Proposamenean sartuta egongo dira, halaber, kontratua betearazteko beharrezkoak diren gastu guztiak, balizko joan-etorriak barne.

Eskaintza ekonomikoan desadostasunak baleude letraz adierazitako prezioaren eta zenbakiz adierazitakoaren artean, letraz adierazitako zenbatekoa nagusituko da.

Lizitatzaileek kontratuaren zer atal azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu behar dute eskaintzan. Kontratuaren atal horren zenbatekoa ere adierazi behar dute, eta azpikontratistaren izena edo enpresaburuaren profila ere eman behar dute, kaudimen profesional edo teknikoen baldintzen arabera zehaztua.

21.- <u>II. FASEKO KONTRATAZIO-MAHAIA: BERARIAZKO KONTRATAZIOAK</u> *SPKLren 157. eta 326. artikuluak)*

HABEko kontratazio-mahaiari dagokio lizitatzaileek berariazko kontratazio bakoitzean aurkeztutako proposamenak baloratzea, eta kontratazio-organoari proposatuko dio nabarmenki baxuegiak diren eskaintzen kalifikazioa, hala badagokio, betiere SPKLren 149. artikuluan aipatzen den prozedura izapidetu ondoren, eta berariazko kontratazioaren esleipena, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailearen alde egitea.

<u>22.- ESD-TIK ERATORRITAKO BERARIAZKO KONTRATUEN ADJUDIKAZIOA</u> (*SPKLren 226., 165. eta 146.-152. artikuluak*)

22.1.- Kontratazio-organoak ESD honen esparruko berariazko kontratuak esleituko dizkio baldintza-agiri honetan ezarri diren esleipen-irizpideen arabera eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari.

22.2. SPKLren 167. artikuluaren e) letran xedatutakoaren arabera, irregulartzat edo onartezintzat joko dira baldintza-agirietan aurreikusitakoaren araberakoak ez diren eskaintza guztiak, epez kanpo aurkeztutakoak, kolusio- edo ustelkeria-zantzuak dituztenak, kontratazio-organoak nabarmenki baxuegiak izatea iritzitakoak eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen duen prezioa dutenak.

22.3.- Eskaintzak baldintza-agiri honen 21. klausulan xedatutakoaren arabera sailkatu eta baloratuko dira. Nabarmenki baxuegiak diren eskaintzak SPKLren 149. artikuluaren eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. eta 86. artikuluen arabera zehaztuko dira.

22.4.- Adjudikazioa ESDaren lizitazio-plataformaren bidez jakinaraziko zaie lizitatzaile guztiei. Gainera, ESDaren esparruan egindako berariazko kontratuen adjudikazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

22.5.- Berariazko kontratua esleitu eta gero, HABEren Ikuskaritza-Arloak dagokion ikastaroaren antolamendua eta gauzatzeko modua gainbegiratuko ditu.

22.6.- SPKLren 152. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratazio-organoak kontratua ez esleitzeko erabakia hartu ahal izango du, edo adjudikazio-prozeduran atzera egin, kontratua perfekzionatu aurretik. Interes publikoko arrazoiengatik soilik hartu ahal izango da kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia. Lizitatzaileei jakinaraziko zaie.

23.- <u>BEHIN BETIKO BERMEA</u> *(SPKLren 107., 108. eta 109. artikuluak)*

Eskaintza onenekin hautatuak diren enpresek behin betiko bermea jarri beharko dute bost (5) egun balioduneko epean kontratazio-organoak bidalitako errekerimendua jasotzen dutenetik aurrera zenbatzen hasita, adjudikatuko den kontratuaren aurrekontuaren % 5eko zenbatekoan, BEZa kanpo, eta honako moduetan gauzatu ahal izango dute:

- Eskudirua zein Zor Publikoko baloreak erabil daitezke. Bermea eskudirutan eratu nahi izanez gero, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusian utzi behar da, edo dagokion erakundean, horren establezimendu baliokidean; baloreak erabili nahi izatera, ostera, idatzitako baloreak ibilgetu direlako ziurtagiriak aurkeztu behar zaizkio kontratazio-organoari.
- Abala erabil daiteke, jarduteko baimena duen banku, aurrezki-kutxa, kreditu-kooperatiba, kredituko finantza-erakunde edo elkarren bermerako sozietate batek emandakoa. Hala eginez gero, kontratazio-organoari aurkeztu behar zaio.
- Kauzio-aseguruko kontratua ere erabil daiteke, arlo honetan jarduteko baimena duen aseguru-erakunde batekin egina. Aseguruaren ziurtagiria kontratazio-organoari aurkeztu behar zaio.
- **<u>Prezioa atxikita. Lizitatzaileek aukera hori erabiltzen badute behin betiko bermea jartzeko, horrela jasoko dute III.1 eranskinean, eskaintza ekonomikoari eta esleipen-ondorioetarako baloragarriak diren beste aldeei buruzkoan</u>**.

Bermearen ordez, EAEko Diruzaintza Orokorrak emandako egiaztagiria aurkeztu ahal izango da, eta egiaztagiri horretan adierazi beharko da berme orokorra badagoela, berme hori nahikoa dela eta osatu beharreko bermeari dagokion kopurua ibilgeturik dagoela.

Enpresen aldi baterako elkartea bada, behin-behineko eta behin betiko bermeak ABEEko parte-hartzaile batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, betiere guztira eskatutako zenbateko osokoa bada, eta partaide guztiak batera eta modu solidarioan bermatzen badira».

Bermeak Eusko Jaurlaritzaren alde eratuko dira (IFZ: S4833001C)

24.- <u>KONTRATUA BURUTZEA</u> *(SPKLren 36.3 eta 153. artikuluak)*

Kontratu bat adjudikatu eta gero, esleipendunak ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu 5 egun balioduneko epean adjudikazio-ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita:

- kontratua gauzatzeko giza-baliabideak atxikitzearen konpromisoa, II.2.2 eranskineko ereduari jarraikiz.
- kontratuaren betearazpenari atxikitako giza-baliabideen kualifikazio teknikoa eta profesionala egiaztatzen duten baldintzak, betiere HABEn aurretik entregatuta ez badaude.
- lizitatzaileak kontratua gauzatzeko proposatutako giza-baliabideak benetan eskura dituela egiaztatzen duten agiriak. Langilearen alta-txostena, lan-kontratua edo gizarte segurantzarekiko kotizazio-agiria aurkeztuko dira, aurretiaz HABEn aurkeztuta ez badaude.
- Lan-kontratuen baldintzei buruzko datuak (I.2 eranskina).
- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko, EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegiko eta Barne Ministerioko langileentzat antolatutako ikastaroak lekualdatutako ikasgeletan emateko, euskaltegiek proposatutako irakasleek Segurtasun Sailaren eta Barne Ministerioaren baimena izan beharko dute, hurrenez hurren. Baimena ukatzen bada, euskaltegiek beste irakasle bat proposatu beharko dute. Beste irakaslerik proposatzen ez badute, euskaltegiak adjudikatutako kontratuari uko egiten diola ulertuko da.
- Azpikontratazioaren kasuan, dagokion jakinarazpena (VI.2 eranskina).

Eskuratze-sistema dinamiko honetatik eratorritako kontratuak beroien esleipenaren bitartez perfekzionatzen dira, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 36.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ez da beharrezkoa izango, beraz, kontratua formalizatzea (SPKLren 153. artikulua). Edonola ere, adjudikazioa klausula honetan adierazitako agiriak aurkezteko baldintzapean egongo da.

25.- AZPIKONTRATAZIOA

25.1. Eratorritako kontratuak egikarizeko azpikontratazioak egitea baimenduta dago, betiere baldintza hauek betetzen badira:

- Zerbitzuren bat azpikontratatu ahal izateko, kontratistak, gutxienez, ondoren zehaztutako ikastaro-kopuruaren esleipendun izan beharko du ESD honen baitan: alegia, azken hiru ikasturte akademikoen artean (2021-2022, 2022-2023, 2023-2024) ikasleak hartzeko gaitasun txikiena garatu duen urtean esleipen bidez jasoak zituen ikastaro-kopurua, ikasturtearen garai berdinean. Parametro hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da agiri honen 4.6 klausularen C2 apartatuan aipatutako baldintzak betetzen dituzten ikasleen talde-kopurua.
- Ikasleen ezagutzen aurrerapenaren eta ebaluazioaren jarraipenean oinarritutako prestazio kritikoa kontratista nagusiak bere gain hartzea.
- Azpikontratistak agiri honetan eskuratze-sistema dinamikoan parte hartzeko ezarritako gaitasun-betekizunak betetzea eta prestazioa gauzatzeko jartzen dituen giza-baliabideek kontratua egikaritzeko ezinbestekoak diren baldintza espezifikoak betetzea.

25.2. Azpikontratazioak, inolaz ere, ezingo du merkatu-lehia modu eraginkorrean mugatu. Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak 1. artikuluan berariazko kontratuen esleipendunek egin dituzten edo egingo dituzten azpikontratazioen inguruan definitutako kolusio-jokabideen arrazoitutako zantzuak egonez gero, eta agiri honen 46.3.4 atalean aurreikusitakoaren arabera kontratazio-organoari jakinarazi bazaizkio, kontratazio-organoak, ofizioz edo kontratazio-mahaiak eskatuta, jakinarazpen horiek Lehiaren Euskal Agintaritzari helaraziko dizkio SPKLren 132. eta 150. artikuluetan aurreikusitako terminoetan. Halaber, kontratazio-organoak Lehiaren Euskal Agintaritzari (AVC/LEA) jakinarazi ahal izango dizkio berari helarazten zaizkion azpikontratazioak, nahiz eta itxuraz kolusio-zantzurik ez izan.

25.3. Baldin eta kontratistak hirugarrenekin kontratatzen badu kontratuaren zatiren bat, bere gain hartuko du botere adjudikatzailean kontratua betearaztearen erantzukizun osoa, baldintza-agiri

honetan eta kontratuaren baldintzetan ezarritakoarekin bat etorrita, gizarte- edo lan-betebeharrak betetzea barnean hartuta.

25.4. Kontratuaren betearazpen partziala azpikontratatu nahi duen esleipendunak gutxienez ikastaroa hasi baino hiru egun lehenago **VI.2 ERANSKINEKO** inprimakia bidali beharko du zuzen bete eta sinatuta, eta egiaztatu beharko du kaudimen eta gaitasun tekniko eta profesionalak betetzen dituztela, hurrenez hurren, azpikontratistak eta irakasleek.

25.5. Azpikontratistei edo hornitzaileei ordaintzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzea. Kontratistak egiaztatu egin beharko du azpikontratistarekin edo hornitzailearekin itundutako ordainketa-baldintzak bete dituela; hain zuzen ere, baldintza horiek SPKLren 216. artikuluan ezarrita dauden mugak errespetatu behar dituzte.

IV.- KONTRATUA EGIKARITZEA

26.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduradunari dagokio lanak gainbegiratzea eta egiaztatzea, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

- Idatziz ematea kontratua behar bezala betearazten dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak, baldintza orokorren 35. klausulan adierazitakoak barne.

- Esleipendunek emandako fakturazioari oniritzia ematea.

- Gainbegiratzea eta egiaztatzea kontratistak behar bezala betetzen dituela kontratuaren arabera hartu dituen betebeharrak, kontratazio-organoari egon daitezkeen arau-hausteen berri ematea eta, hala badagokio, kontratua suntsiarazteko edo zehapenak ezartzeko proposamena egitea.

- 26. klausulari jarraikiz, kontratuaren betearazpenari esleipendunak atxiki behar zizkion giza-baliabideen eta baliabide materialen aldaketaren gaineko txostena ematea.

- Beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.

- Errekerimendua egitea kontratistari dokumentazio gehigarria eman dezan, egiaztatu ahal izateko kontratuaren indarraldi osoan zehar dauzkala hirugarren erakundeen kaudimena eta/edo baliabideak, kaudimen eta/edo baliabide horiek oinarri hartu baitzituen kontratuaren adjudikazio-prozeduran.

- Egiaztatzea kontratistak azpikontratistei ordaintzeko betebeharra betetzen duela.

- Kontratua egikaritzean berandutuz gero, dagokion txostena egitea sortutako atzerapena kontratistari egotz dakiokeen zehazteko.

- ABEEko kideen lagapenari eta aldaketari buruzko txostenak egitea.

- Kontratu espezifikoen egikaritzapenarekin lotuta beharrezkoak diren bestelako txostenak egitea edo kontratazio-organoak eskatzen dizkionak ematea.

27.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK *(SPKLren 133.2, 196., 201., 202. eta 211.1 artikuluak)*

27.1.- Kontratistak baldintza tekniko berezien agirian zehaztutako epean eta lekuan egin beharko ditu kontratuaren xede diren zerbitzuak.

27.2.- Aplikatu behar diren beste klausula batzuk.

27.2.1.- Kontratu-dokumentuetan eta jarraibideetan ezarritakoa betetzea.
Kontratua egikaritzean zorrotz beteko da kontratu-dokumentuetan, kontratistaren eskaintzan eta kontratuaren arduradunak idatziz emandako jarraibideetan ezarrita dagoena.

27.2.2.- Baimenak.
Kontratistari dagokio prestazioa gauzatzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea, hala publikoak nola pribatuak, bai eta horiek sortutako gastuak ordaintzea ere.

27.2.3.- Aseguruak.
Kontratistak nahitaez kontratatu beharko ditu nahitaezko aseguruak, eta kontratatuta mantendu beharko ditu eratorritako berariazko kontratuaren klausula espezifikoetan ezarritakoak, hala badagokio.

27.2.4.- Lankidetza.
Kontratistak inolako kostu gehigarririk gabe eman behar dizkio botere adjudikatzaileari kontratuaren xedea behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak; adibidez: azalpen-bileretara joatea, jendeari informazioa ematea… Era berean, kontratataturiko zerbitzua egikaritzen ari den lekuetara sarbide librea eman beharko dio kontratuaren arduradunari, baldin eta ez bada botere adjudikatzailearen instalazioa.

27.2.5.- Kontratistaren erantzukizuna.
Kontratista izango da kontratatutako zerbitzua zuzen egikaritzearen erantzule, eta baita egikaritze horren ondoriozko kalteena ere.

Kontratua egikaritzearen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak sortuz gero, kontratistak kalte-ordaina eman beharko du eragindako kalte eta galera guztiengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

28.- GAUZATZEAN ERABILITAKO BALIABIDEAK

Kontratista behartuta dago ESDtik eratorritako berariazko kontratu bakoitzean eskatzen den baliabideei buruzko atxikipen-konpromisoan adierazitako baliabideak atxikitzera kontratua egikaritzeko, eta horrez gain, kontratua kontratu-dokumentuetan ezarritako baldintza eta epeen arabera betetzeko behar diren bitartekoak ere atxiki beharko ditu.

Hautatutako lizitatzaileek sistema dinamiko honen kontratuen xede diren ikastaroak irakasteko izendatzen dituzten pertsona fisikoek bete egin behar dituzte euskaltegietan eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuetan irakasle gisa jarduteko betekizunak (uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 14. artikulua); eta C2 mailako ikastaroen kasuan, irakasleek C2 maila egiaztatuta edukitzeaz gain, lan-eskarmentua izango du maila horretako ikastaroak ematen. Kasu guztietan irakasleek gutxienez 1000 orduko irakas-eskarmentua izan behar dute Pertsona Helduei Euskara Irakasteko HABEren Oinarrizko Curriculumak aplikatzen (2015eko uztailaren 22ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena) azken 3 urteetan.

Adierazitako giza-baliabideak aldatzeko, aurretiaz jakinarazi behar zaio kontratuaren arduradunari, aurkeztutako dokumentu ziurtatzaileen bidez egiazta dezan proposatutako baliabideak eskatutako baldintzak betetzen dituela eta adostasuna eman dezan zazpi (7) egun baliodunen epean. Kontratuaren arduradunak ondorioztatzen badu baliabideak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, erabakia oinarritzen duten arrazoiak adierazita, modu horretan, kontratistak baldintzak betetzen direla justifikatu edo bestelako baliabidea proposatu dezan. Ados ez badago, kontratuaren arduradunak kontratazio-organoari jakinaraziko dio, hark ebatzi dezan.

Giza baliabideak ordeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da klausula honetan ezarritakoa betetzea.

Prozedura eta baldintza hauen arabera ordeztu ahal izango da:

- Kontratistak eskatutako aldaketa: arrazoi justifikatuak direla-eta ordezkapen bat egin behar badu, idatziz jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari. Hamabost (15) egun baliodun lehenago jakinarazi beharko du –arrazoia ez bada aldi baterako lanerako ezintasuna edo heriotza–, eta datu hauek adierazi beharko ditu:
- Ordeztu nahi den pertsona nor den eta zergatik ordeztu nahi den.
- Ordezkoa izateko hautagaiaren proposamena, ordezko izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duten dokumentuak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezkatzea jakinaraziko du eta kontratistari esango dio, azalduz zeintzuk diren bere txostenaren arrazoiak, baldin eta ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen.

Beste hautagai bat proposatu ahal izango du kontratistak.

- Botere adjudikatzaileak eskatutako aldaketa: kontratua behar bezala betearazteko ordezkapen bat egin behar dela uste badu, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, arrazoiak adierazita. Kontratistak, hamabost (15) egun balioduneko epean, betekizunak betetzen dituen hautagai bat proposatuko du gutxienez, hori ziurtatzen duten ziurtagiriak ere aurkeztuta.

Zazpi (7) egun balioduneko epean, kontratuaren arduradunak ordezkapenarekin ados dagoela esango du; bestela, ondorioztatzen badu hautagaiak ez dituela betekizunak betetzen, idatziz jakinaraziko dio kontratistari, desadostasuna oinarritzen dituzten arrazoiak adierazita. Kontratistak beste hautagai bat proposatu beharko du, aurreko apartatuan aipatu diren baldintzei jarraituz.

Halaber, arau berak aplikatuko zaizkie kaudimena egiaztatzeko emandako baliabideei, baita kontratistak lizitazio-fasean beste entitate batzuen kaudimena edo baliabideak aurkeztu baditu ere.

29.- LANAREKIN, GIZARTE-SEGURANTZAREKIN ETA LAN-SEGURTASUNAREKIN ETA -OSASUNAREKIN LOTUTAKO BETEBEHARRAK

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak, eta, bereziki, honako hauek:

29.1.- Garatu beharreko prestazioak lan-ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-ordenantza eta hitzarmen kolektibo horietan ezarritako xedapenak.

29.2.- Kontratistak langileen bizitzari, osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak ahalik eta ondoen prebenitzeko behar diren laneko segurtasun- eta higiene-neurri guztiak hartuko ditu.

29.3.- Halaber, indarreko araudiak lan-arriskuak prebenitzeko ezarritako betebeharrak beteko ditu eta, kontratatutako jarduera hasi aurretik, betebehar hauek bete dituela frogatu behar du:

- Indarreko legeriarekin bat datorren prebentzio-antolamendua ezarri izana.

- Lan-arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartu zuen Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 2. artikuluaren araberako lan-arriskuen prebentzio-plan bat ezarri eta aplikatuz. Baldintza hori frogatutzat joko da OHSAS 18001 Arauan, LANEren segurtasun- eta osasun-sistemei buruzko jarraibideetan edo beste arau baliokide batean oinarritutako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema bat ezarrita edukitzearekin, baldin eta sistema horrek ebaluatzen eta egiaztatzen badu eskatzen diren neurriak betetzen diren ala ez. Beste edozein bide egokiren bidez ere froga daiteke betebehar hori bete den.

Kontratatutako jardueraren arriskuak ebaluatu eta prebentzio-jarduera planifikatzea.

- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legearen (azaroaren 8ko 31/1995) V. kapituluan ezarritako kontsulta eta parte-hartzea nola gauzatu den arautzen duen idatzizko prozedura bat edukitzea edo, hala balegokio, Segurtasun eta Osasun Batzordearen bileren aktak.

- Ezarritako segurtasun-neurriak betetzen diren edo ez kontrolatzeko prozedura edukitzea eta, beharrezkoa bada, Langileen Estatutuan, hitzarmen kolektiboan eta abarretan langile guztien segurtasuna bermatzeko ezarritako diziplina-neurriak hartzea.

- Arriskuen ebaluazioari lotutako prebentzio-baliabideak eduki beharra eragiten duten lanpostuen edota jardueren zerrenda edukitzea.

- Kontratuaren betearazpenean parte hartzen duten langile guztiek, enpresakoek zein kanpokoek, sartzean arrisku espezifikoei, babes-neurriei eta larrialdi-neurriei buruzko informazioa jaso dutela egiaztatzea, bai eta bere jarduerari eragiten dioten arriskuei buruz behar duten prestakuntza jaso dutela ere (azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 18. eta 19. artikuluak eta, hala badagokio, urriaren 18ko 32/2006 Legea eta abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretua), lan-arriskuen prebentzio-planaren prozeduraren arabera. Bereziki, norbera babesteko ekipamenduen erabilerari buruz behar den prestakuntza eman izana.

- Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak eman izanaren egiaztagiria edukitzea, beharrezkoak balira.

- Lanen garapena eta langileen kontratazioa planifikatzea, langileen atseden-egunak errespetatuz eta ordu osagarriak salbuespenezko kasuetan bakarrik eginez.

29.4.- Kontratistak kontratuaren betearazpenaren zati bat azpikontratatzen badu, aurreko betebeharren egiaztagiriak eskatu beharko dizkie azpikontratatuei, eta kontratazioa egin duen botere adjudikatzaileari eman.

29.5.- Langileek lanean dabiltzala istripuren bat izanez gero edo kalteren bat jasanez gero, adjudikaziodunak indarreko arauek xedatutakoa bete behar du; berak edukiko du horren erantzukizuna, inola ere ez botere adjudikatzaileak.

30.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontratistak eta azpikontratistek behar bezala bete beharko dituzte kontratua betearazteko baldintza berezi hauek.

30.1.- Hizkuntza:

Botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko harremanetan, normalean euskara erabiliko da.
Kontratuaren betearazpenari begira, honela ulertuko da «normalean euskara erabiliko da» esaldia: Ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua betearazteko zereginak direla-eta administrazio kontratatzailearekin harremanetan jartzen direnean. Botere adjudikatzaileak euskara erabiltzen badu kontratuaren betearazpenari atxikitako langileekin eta ez badago inor hizkuntza horretan ondo dakienik, gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu botere adjudikatzailearekin kontratuaren betearazpenari loturiko harremanean hizkuntza horretan jardun ahal izateko behar diren baliabideak edo behar den euskarazko hizkuntza-gaitasuna duten langileak. Idatzizko jakinarazpenak euskaraz idatziko dira.

30.2.- Azpikontratistei eta hornitzaileei egindako ordainketak egiaztatzea:

30.2.1.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hark hala eskatzean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten zerrenda zehatza, haien partaidetza osatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazio- edo zerbitzu-prestazioak ere, ordainketa-epearekin lotura zuzena dutenak.

30.2.2.- Kontratuaren arduradunari igortzea, hala eskatzen duenean, aurreko puntuan azaldu diren azpikontratistei edo hornitzaileei ordaindu izanaren frogagiria, behin prestazioa amaituta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 216. artikuluan eta Merkataritza-eragiketetako Berankortasunaren Aurkako Neurriak Ezartzen dituen Legean (abenduaren 29ko 3/2004) ezarritako legezko ordainketa-epeen barruan.

30.2.3. Azpikontratistei edo hornitzaileei egindako ordainketak SPKLren 217. artikuluaren arabera egiaztatuko dira. Egiaztatze-jarduketak eta zigor-ezarpenak nahitaezkoak izango dira administrazio publikoentzat eta gainerako erakunde publiko kontratatzaileentzat obra-kontratuetan eta zerbitzu-kontratuetan, baldin eta haien balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada edo azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuko prezioaren ehuneko 30ekoa edo handiagoa bada, kontratista nagusiarekin obra-atal edo -unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa kontratu bidez beren gain hartu duten azpikontratistentzako ordainketei dagokienez. Ondorio horietarako, kontratu horietan kontratistak obra-ziurtagiri bakoitzean kontratuaren azpikontratistei egindako ordainketen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Ziurtagiri horretan azaldu beharko da ordainketa SPKLren 216. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egin dela.

30.2.4. Azpikontratistak edo hornitzaileak kontratazio-organoari emandako ebazpen judizial edo arbitraje-ebazpen irmoarekin egiaztatzen denean kontratistak ez diola kontratuaren betearazpenari lotutako azpikontratistari edo hornitzaileari ordaindu abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako epeetan, edonola ere, kontratistari zehapenak ezarriko dizkio. Betiere, ordainketaren atzerapenaren arrazoia ez bada azpikontratistak edo hornitzaileak prestazio-betearazpenean bere gain hartutako kontratu-betebeharren bat ez betetzea.

30.3.- Datuak babesteari dagokionez:
Kontratistari datuak laga behar bazaizkio kontratua betearazteko, kontratistak Europar Batasuneko eta Espainiako datuen babesaren arloko araudia bete beharko du.

30.4.- Gizarte-motakoa edo enpleguari lotutakoa:

30.4.1.- Lanaren alorrean, Gizarte Segurantzari dagokionez eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean indarrean dauden legezko, araubidezko eta ohiko xedapenak betetzea.
30.4.2.- Kontratua gauzatu bitartean, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta inola ere ez da ordainduko soldata hori baino gutxiago.
30.4.3.- Kontratuaren betearazpenetik eratorritako datu guztiei erakunde-gardentasuna ematea.

31.- DATUEN KONFIDENTZIALTASUNA ETA TRATAMENDUA

31.1.- KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratua dela-eta kontratistak eskuratzen duen informazio guztia konfidentziala izango da. Administrazioak idatzizko baimena eman ezean, kontratistak eta berak kontratua gauzatzeko izendatutako pertsonek ezin dute euren onurarako erabili, ez eta beste inori eman ere, kontratatutako lanei buruzko informaziorik edo daturik, edo kontratua gauzatzea dela eta eskura dezaketen informaziorik edo daturik. Beraz, eskura dauzkaten bitarteko guztiak erabili behar dituzte lanaren emaitzak eta informazioa isilpean gordetzeko (SPKL, 133. artikulua). Ildo beretik, datu pertsonalik erabili behar ez den lanetan enpresak eta haren langileek ezin dute eskuratu halako daturik, eta isilpean mantendu behar dituzte zerbitzua egitean ezagutzen dituzten datu guztiak (Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea garatu duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 83.2. artikulua).

31.2.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Datu pertsonalen tratamendua da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa edo eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe; hala nola datuak biltzea, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea,

egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezereztea edo suntsitzea.

Kontratu hau betetzeko, kontratistak «Kontratazioaren prozedura» izeneko tratamenduan agertzen diren datu pertsonalak tratatu beharko ditu. Tratamenduaren organo arduraduna dagokion kontratazio-organoa da (aurrerantzean, tratamenduaren organo arduraduna).

Horrek esan nahi du, kontratistak tratamenduaren arduradun gisa jardun behar duela eta une bakoitzean indarrean dagoen araudia bete behar duela eta datu pertsonalak zuzen tratatu eta babestu behar dituela, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hogeita bosgarren xedapen gehigarriaren arabera.

Kontratistak, kontratuan jasotako baldintzak edo indarrean den legeria bete gabe, datuok beste xede baterako zuzentzen, jakinarazten edo erabiltzen baditu, tratamenduaren erantzuletzat ere hartuko da, eta hortaz, berak egin dituen arau-hausteen erantzule izango da.

«Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» izeneko VII.2 eranskinean xehetasunez deskribatzen dira babestu beharreko datu pertsonalak, egin beharreko tratamendua eta kontratistak ezarri beharreko neurriak.

Kontratu-betearazpenaren ondorioz uneren batean «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinean xedatutakoa aldatu behar bada, kontratistak arrazoituta eskatuko du eta behar dituen aldaketak zeintzuk diren adieraziko ditu. Tratamenduaren arduraduna eskatutakoarekin ados balego, eguneratutako «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskina bidaliko luke, eta bertan tratamenduaren xehetasuna fideltasunez jaso beharko litzateke beti.

31.3.- Xedapenak tratamenduaren arduradun gisa.

Klausula honen betebeharrak eta agiri honen «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinak osatzen dute Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesten dituena datu pertsonalen tratamenduari eta datuen zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/EE Zuzentaraua bertan behera uzten duenaren 28.3 artikuluan tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren (tratamenduaren arduradun gisa jarduten duenean) arteko tratamenduaren enkargu-kontratua deitzen dena.

Betebehar horiek betetzeko egin beharreko prestazioak ez dira agiri honetan eta gainerako kontratu-agirietan aurreikusita ez dagoen moduan egingo, eta zerbitzu-kontratu honen iraupen berbera izango dute, eta hala dagokionean, haren aldi berdinetan luzatuko dira. Hala eta guztiz ere, kontratua amaitzean, indarrean jarraituko du sekretu-betebeharrak, denbora-mugarik gabe, betearazpenaren barne dauden guztientzat.

Kontratu honen helburua betetzeko kontratistak ez du tratamenduaren arduradunaren ardurapeko bestelako daturik eskuratu beharko. Beraz, ez du inolaz ere baimenik «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinean zehaztuta ez dauden bestelako datuak eskuratu ezta tratatzeko.

Kontratua betearaztean zerbait gertatzen bada eta tratamenduaren organo arduradunaren erantzukizunpeko datu pertsonalak istripuz edo ezustean erabiltzen badira eta horiek «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinean jasota ez badaude, kontratistak tratamenduaren arduradunari jakinarazi beharko dio, zehazki, datuak babesteko ordezkariari, ahalik eta azkarren, eta gehienez ere 72 ordu igaro aurretik.

Kontratistak nahitaez bermatuko du honako betebeharrak betetzen dituela, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» eranskinean xedatutakoekin osatuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz:

a) Datu pertsonalak dokumentu honetan eta kontratua gauzatzeari aplika dakizkiokeen gainerako dokumentuetan jasotako jarraibideen arabera tratatzea, baita, hala badagokio, tratamenduaren arduradunak unean-unean idatziz ematen dituen jarraibideen arabera ere.

Kontratistak berehala jakinaraziko dio tratamenduaren arduradunari uste duenean jarraibide bat unean-unean aplikagarria den datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa dela.

b) Datu pertsonalak kontratuaren xedearena ez den helburu batekin ez erabiltzea edo aplikatzea.

c) Datu pertsonalak segurtasun-irizpideen eta DBEOaren 32. artikuluan ezarritako edukiaren arabera tratatzea, eta isilpekotasuna bermatzeko eskura dituen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzea.

Bereziki, eta izaera mugatzailerik gabe, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinean zehaztutako arrisku- eta segurtasun-maila babesteko neurriak aplikatzera behartzen du bere burua.

d) Erabateko konfidentzialtasuna gordetzea kontratua gauzatzeko eskura dituen datu pertsonalen inguruan, baita tratamenduaren ondorioz eskuratzen dituen datuen inguruan ere, edozein euskarritan eskuratu dituela ere. Betebehar hori datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen pertsona ororentzat da, eta kontratistaren betebeharra izango da bere mendeko pertsonei jakinaraztea sekretu-betebehar hori dutela eta betebehar horri bete behar dutela baita zerbitzua ematen amaitu ondoren edo zerbitzuarekiko lotura amaitu ondoren ere.

e) Plegu honen xede diren datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda bat edukitzea; bermatzea pertsona horiek konfidentzialtasuna errespetatzeko eta dagozkion segurtasun-neurriak betetzeko konpromisoa berariaz eta idatziz hartzen dutela eta pertsona horiei dagokion informazioa ematea. Gainera, tratamenduaren arduradunaren eskura jarriko du dokumentazio egiaztatzaile hori.

f) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek datu pertsonalak babesteari buruz behar duten prestakuntza jasotzen dutela bermatzea.

g) Datu pertsonalak hirugarrenei ez jakinaraztea (ez lagatzea) eta ez zabaltzea, ezta gordetzeko ere, salbu eta, kasuan-kasuan, tratamenduaz arduratzen den organoaren aldez aurreko baimen esplizitua balego.

h) DBEOren arabera beharrezkoa denean, datuak babesteko ordezkaria izendatzea, eta borondatez egiten denean, bere izendapena jakinaraztea tratamenduaren arduradunari. Horretaz gain, kontratistak datu pertsonalak babestearen ondorioetarako ordezkari gisa izendatutako pertsona fisikoaren edo fisikoen nortasuna eta harremanetarako datuak jakinaraziko ditu (tratamenduaren arduradunaren ordezkariak). Beraiek izango dira datu pertsonalen tratamenduaren araubidea beteko dutenak legezko adarretan, formaletan eta segurtasunekoetan.

i) «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinean jasotako tratamenduaren organo-arduradunak hautatutakoaren arabera, itzultzea edo suntsitzea erabili dituen datu pertsonalak, tratamendua dela-eta kontratistak sortutako bestelakoak eta datuok dauden euskarriak edo agiriak, agiri honetako kontratu-prestazioa amaitzen denean. Nolanahi ere, ez dira suntsituko legez edo Europako Erkidegoko zuzenbideko arau baten bidez datuok mantentzea baimentzen edo eskatzen bada.

Hala ere, tratamenduaren enkargatuak datu pertsonalak gorde ahal izango ditu tratamenduaz arduratzen den organoarekin daukan harremanetik erantzukizunak erator daitezkeen bitartean. Datuak blokeatuta eta gutxieneko denboran gordeko ditu, eta modu seguruan eta behin betiko suntsituko ditu aipatutako epe hori amaitzen denean.

j) Datu pertsonalak tratatzea tratamendu-sistema eta -gailu eskuzkoetan eta automatizatuetan eta «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinean zehazten diren lekuetan. Ekipamendu hori tratamenduaz arduratzen den organoaren kontrolpean egon daiteke, enkargatuaren kontrolpean zuzenean zein zeharka edo tratamenduaz arduratzen den organoak aldez aurretik eta idatziz baimendutako beste batzuen kontrolpean, aipatutako eranskinean ezarritakoaren arabera eta kontratuaren xedea zertzeko izendatutako erabiltzaileek edo profilek baimenduta.

k) Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikoaren barruan edo aplikatzekoa den araudiak segurtasun-eremu baliokidetzat jotzen duen beste eremu batean tratatzea, eta ez tratatzea espazio horretatik kanpo, ez zuzenean, ez baimendutako azpikontratisten bidez, plegu honetan edo kontratuaren gainerako dokumentuetan ezarritakoaren arabera, salbu eta horretara behartuta badago aplikagarria zaion Europar Batasuneko edo Estatu Kideko zuzenbidearen arabera, «Datu pertsonalen tratamenduaren enkargua» VII.2 eranskinean beste zerbait adierazten bada edo tratamenduaz arduratzen den organoak espresuki hala agintzen badu.

Zuzenbide nazionalaren edo Europar Batasuneko zuzenbidearen ondorioz kontratistak datu pertsonalen nazioarteko transferentziaren bat egin behar badu, legezko eskakizun hori idatziz jakinaraziko dio tratamenduaz arduratzen den organoari tratamendua egiteko behar besteko aurrerapenarekin, eta tratamenduaz arduratzen den organoari aplika dakiokeen legezko baldintza guztiak betetzen direla bermatuko du, salbu eta aplikatu beharreko zuzenbideak hala debekatzen badu interes publikoko arrazoi garrantzitsuengatik.

l) Tratamenduaren ardura duen organoari behar ez den atzerapenik gabe jakinaraztea bere ardurapeko datu pertsonalen segurtasunaren edozein urraketa, gehienez ere 72 orduan, organo horrek adierazitako pertsonari, eta horretarako, honako hauek helarazi beharko dizkio, DBEOaren 33. artikuluaren arabera: gorabeheraren dokumentaziorako eta komunikaziorako garrantzizko informazio guztia edo informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sisteman gertatu den edo gerta litekeen edozein akats, zeina arriskuan jartzen duen datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edota eskuragarritasuna, bai eta jasotako informazioen balizko urraketa ere, datu konfidentzialak ezagutzean eta gauzatzean, eta kontratua betetzean lortutako datuak eta

informazioa hirugarrenei jakinaraztearen ondorioz konfidentzialtasunaren balizko urraketa oro (are gehiago, zer interesdunen datuen konfidentzialtasuna galdu den zehaztu behar da).

m) Tratamenduaz arduratzen den organoari ahalik eta lasterren jakinaraztea interesdun batek organoarekiko dituen eskubideren bat baliatu duela, hala nola datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, haiei aurka egiteko eta haien tratamendua mugatzeko eskubideak edota aplikatzekoa den araudiak aitortutako beste eskubide batzuk eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea.

Jakinarazpenean, eskubidea nork baliatzen duen adieraziko da, modu frogagarrian identifikatuta, eta, hala badagokio, eskaera ebazteko garrantzitsuak izan daitekeen dokumentazioa eta bestelako datuak erantsiko dira.

Tratamenduaz arduratzen den organoari lagunduko dio, ahal den guztietan, eskubidea baliatzen duen pertsonaren eskubidea bete dezan eta erantzun diezaion.

n) Tratamenduaz arduratzen den organoarekin lankidetzan aritzea segurtasun-neurrien arloan dituen betebeharrak betetzeko, agintaritza eskudunei edota interesdunei segurtasun-neurrien arrakalak jakinarazteko (burutuak eta saiakerak), datu pertsonalen babesari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiteko eta agintaritza eskudunei inpaktu horiei buruzko aurretiazko kontsultak egiteko, tratamenduaren izaera eta eskura duen informazioa kontuan hartuta.

Era berean, tratamenduaz arduratzen den organoaren esku jarriko du, hark hala eskatuta, klausula hauetan eta kontratuaren gainerako dokumentuetan ezarritako betebeharrak betetzen direla frogatzeko behar beste informazio, eta lagundu egingo du, hala badagokio, tratamenduaz arduratzen den organoak egiten dituen auditoretzak eta ikuskapenak gauzatzen.

ñ) DBEOaren 30.5 artikuluan ezarritako kasuetan, idatziz jasotzea (formatu elektronikoan izan liteke) tratamenduaz arduratzen den organoaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa. Erregistro horrek, gutxienez, DBEOaren 30.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarrak jasoko ditu.

o) Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboko betebeharra betetzen dituela frogatzen duten ebidentziak izatea (hala nola betetze-mailari edo auditoretzen emaitzei buruzko aurretiko ziurtagiriak), zeinak tratamenduaz arduratzen den organoaren esku jarri beharko baititu hark hala eskatuz gero. Horrez gain, kontratua indarrean dagoen bitartean, tratamenduaz arduratzen den organoaren esku jarriko ditu une bakoitzean egindako informazio, ziurtagiri eta auditoretza guztiak.

p) Tratamenduaren organo arduradunari egingo diren datuen tratamenduen informazioa ematea, horiek jasotzean. Informazioa idazteko modua eta emateko formatua tratamenduaren organo arduradunarekin adostuko dira datuak jasotzen hasi baino lehen.

32.- ZIGORRAK

Ezertan eragotzi gabe, alde batetik, kontratistari legez dagokion betebeharra, akatsak konpontzeko eta kalte eta galerak ordaintzeko eta, bestetik, kontratua suntsiarazteko aukera, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta baldintza orokorren 36. klausulan jasotakoaren arabera, kontratazio-organoak zigorrak ezarri ahal izango dizkio kontratistari, arrazoi hauek direla medio:

32.1.- Kausak eta zenbatekoak.

a) Kontratua adjudikatu ondoren hura betetzeari uko egitea: ESDan onartua izateko baldintza etetea kategoriatik eratorritako berariazko hurrengo bi (2) kontratazioetarako.

b) Entregatzeko guztizko epea edo epe partzialen bat ez betetzea, hau da, kontratua betearazten berandutzea: adjudikazio-prezioaren % 3 atzeratu den egun bakoitzeko.

c) Funtsezko kontratu-betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 1 eta % 10 artean, urraketaren astuntasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

d) Azpikontratazioen arloan ezarritakoa ez betetzea: azpikontratuaren zenbatekoaren **% 50** arte.

e) Eskaintzen bitartez hartu diren eta balorazio-irizpide gisa kontuan hartu diren konpromisoak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 1 eta % 10** artean, ez betetzearen astuntasunaren arabera eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

f) 28. klausulan adierazitako betebeharrak ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen **% 0,5 eta % 10** artean, urraketaren astuntasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

g) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzea, plan hori nahitaezkoa denean: berandutze-egun bakoitzeko euro bat kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen 5.000,00 euro bakoitzeko.

h-) Sekretu profesionalaren betebeharra edo datuak babesteko araudia ez betetzea: kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 1 eta % 10 artean, urraketaren astuntasunaren eta, hala badagokio, errepikapenaren arabera.

32.2.- Prozedura.
Zigorren ezarpena kontratazio-organoaren ebazpenaren bitartez erabakiko da, eta jardun hauek egin beharko dira hori erabakitzeko:

1) Kontratuaren arduradunaren txostena, ikusi diren ez-betetzeak identifikatu eta zigorraren zenbatekoa proposatuz.

2) Kontratistari entzutea bost (5) egun balioduneko tartean, egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan.

29.2 klausulan aurreikusitako inguruabarretan, kontratuaren arduradunari horren inguruko txostena eskatu ahal izango zaio.

3) Kontratazio-organoaren ebazpena.

4) Zenbateko horiek bilduko dira kontratistari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik zuzeneko kenketa eginez.

33.- <u>PREZIOA ORDAINTZEA</u>

Prezioa ordainketa partzial hauetan ordainduko da HABEren ikuskaritzak kontratistak benetan egin dituen lanei dagokien ikuskaritza-txostena egin eta gero, eta aurretiaz, azken horrek dagozkion fakturak aurkeztu ondoren:

Mugarria	Zenbatekoa	Epea
2024ko irailaren 1aren ondoren eta 2024ko abenduaren 31ren aurretik hasi, eta 2025ko ekainaren 30a baino lehen bukatzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren prezio osoaren % 33	2024ko abenduaren 31 baino lehenago
	Ikastaroaren prezio osoaren % 33	2025ko apirilaren 15a baino lehen.
	Ikastaroaren prezio osoaren % 34	2025eko ekainaren 30a baino lehen
2025ko urtarrilaren 1aren ondoren hasi eta 2025ko ekainean 30 baino lehen bukatzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren prezio osoaren % 50	2025ko apirilaren 15a baino lehenago
	Ikastaroaren	2025ko ekainaren 30a

	prezio osoaren % 50	baino lehen
2025ko martxoaren 1aren ondoren eta maiatzaren 30era bitartean hasi eta 2025ko abenduaren 31 baino lehen bukatzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren prezio osoaren % 50	2025ko ekainaren 30a baino lehen
	Ikastaroaren prezio osoaren % 50	2025ko abenduaren 31 baino lehen
2025ko urrian, matrikularen prezio osoaren likidazioa, 2025ko ekainaren 1etik irailaren 30a bitartean hasi eta bukatzen diren ikastaroetarako.	Ikastaroaren prezio osoaren % 100	2025ko urriaren 30a baino lehen

Eskuratze-sistema dinamiko honen epearen barnean hasten diren ikastaroak bertan xedatutakoaren arabera garatu eta ordainduko dira, 2025eko irailaren 30aren ondoren bukatu arren baita ere.

33.2.- Onespena eta faktura erregistratzea.
Kontratuaren arduradunak txostena egin beharko du emandako zerbitzuen betearazpen zuzenari buruz erregistratu eta hogeita hamar (30) eguneko epean, eta egun horretan bertan bidali beharko dio dokumentuaren kopia bat kontratistari, indarrean den legeriaren arabera dagokion bidea erabiliz.

Onespen-dokumentuaren kopia jaso ondoren, kontratistak faktura aurkeztuko du faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarrita dagoenaren arabera, hogeita hamar (30) eguneko epean, zerbitzuaren egunetik aurrera.

33.3.- Ordainketa.

Egikarituriko zerbitzuei buruzko ziurtagiria edota faktura onartu eta hogeita hamar (30) eguneko epean ordaindu beharko du botere adjudikatzaileak prezioa. Ordaintzeko betebeharrean atzeratzen bada, aurreko atalean adierazitako epetik aurrera berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen ordaina ordaindu beharko dizkio kontratistari, abenduaren 29ko 3/2004 Legean (merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena) ezarritakoarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, interesak sortzeko epea zenbatzen hasiko da kontratistak kontratuaren arduradunak txostena egin eta gero aurkeztu badu faktura. Txosten hori egin aurretik aurkeztu badu faktura kontratistak, ordainketa egiteko hurrengo hogeita hamar (30) eguneko epea zenbatzen hasiko da txostena ematen den egunetik aurrera. Kontratistak ez badu betetzen fakturak aurkezteko hogeita hamar (30) eguneko epea, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar (30) egun igarotzen diren arte, faktura dagokion erregistroan aurkezten den egunetik hasita; betiere botere adjudikatzaileak ez badu fakturari buruzko onespenik eman, eta ez badu ordaindu.

Kontratistak Euskal Autonomia Erkidegoko fakturazio elektronikoaren zerbitzuaren bidez eman eta igorri beharko ditu fakturak. Ez da izango beharrezkoa fakturak elektronikoki ematea eta igortzea fakturaren zenbatekoa (BEZa barne) 5.000,00 euro edo txikiagoa bada edo faktura horien hartzaileak EAEk atzerrian dituen ordezkaritzak badira, hala baitago xedatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Fakturazio Elektronikoaren zerbitzua eta Fakturen Kontularitza Erregistroa arautzen dituen Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2014ko abenduaren 26ko Aginduan. Hala ere, faktura elektronikoa eman eta igorri beharko dute Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak 4. artikuluan aipatutako entitateek, baldin eta faktura Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari, haren organismo autonomoei eta partzuergoei egindako zerbitzuengatik edo entregatutako ondasunengatik bada.

34.- KONTRATUA LAGATZEA ETA ABEE-AREN KIDEAK ALDATZEA

34.1.- Kontratua lagatzea.

34.1.1.- Kasuak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 98. artikuluan aurreikusita dituen kontratistaren ondorengotzako kasuei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 69.9 artikuluan aurreikusita dagoen ABEEaren osaeraren aldaketako kasuei kalterik egin gabe, honako kasu hauetan laga ahal izango da kontratua:

Kontratista kaudimengabeziako egoeran badago, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen 2.2 artikuluarekin bat etorriz, eta oraindik ez badu konkurtsoa deklaratzeko eskatu, baldin eta ez bada kaudimengabekotzat jo beste prozeduraren batean.
Kontratista konkurtso-egoeran deklaratu denean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko eskuduna den epaitegiari jakinarazi zaion negoziazioak hasi direla birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.
Kontratista pertsona fisikoa denean eta kontratua amaitu baino lehen erretiroa hartzeko asmoa azaldu duenean.

34.1.2.- Prozedura.

Kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, lagatzeko baimena eskatuko dio. Eskaera horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratua lagatzea eskatzeko bidea ematen duen inguruabarra dagoela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Lagapen-hartzaileak SPKLren 214.2 artikuluko c) letran jasotako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentazioa.
- Kontratazio-organoak prozeduraren hasiera erabakitzen duen ebazpena ematea. Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 bete behar den ala ez dioena, eta, bete behar izanez gero, betekizun hori betetzen den ala ez dioena. Halaber, SPKLren 214. artikuluko 1. apartatuko bigarren lerrokadan jasota dauden mugak errespetatzen direla azaldu beharko du.
- Txosten juridikoa.
- Lagapena formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.
- Kontratazio-organoaren ebazpena, lagatzeko baimena emateko eta kontratistari jakinarazteko.
- Kontratistaren profilean argitaratzea kontratazio-organoaren ebazpena, lagapena baimentzen duena.
- Lagapena eskritura publikoan formalizatzea.
- Lagapen-hartzaileak bermea gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

34.1.3.- Baldintzak.

34.1.3.1.- Nolanahi ere, kontratazio-organoak lagapena baimen dezan, baldintza hauek bete behar dira:

- SPKLren 214. artikuluko 2. apartatuan jasotako betekizunak betetzea.
- Lagatzailearen (kontratista) ezaugarri tekniko edo pertsonalak arrazoi erabakigarria ez izatea kontratua adjudikatzeko.
- Lagapenak merkatuan lehiaren murrizketa ez ekartzea.

34.1.3.2.- Ezingo da baimendu kontratuaren lagapena kontratistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

34.1.3.3.- Eskritura publikoan formalizatu beharko da kontratistaren (lagatzailea) eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena.

34.1.3.4.- Lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratuta eduki arte.

34.2.- ABEEa osatzen duten kideak aldatzea.

34.2.1.- ABEEaren osaeraren aldaketak berekin badakar bertako kideen kopurua handitzea, txikitzea edo kide bat edo batzuk beste batzuekin ordeztea, honela jokatuko da:

ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari eta, horren bidez, aldatzeko baimena eskatuko dio. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar du:

- ABEEaren osaera aldatzeko bidea ematen duten inguruabarren justifikazioa.
- ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela eta ABEEa eratu behar duten guztiek jarduteko gaitasun osoa dutela eta sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik ez dutela dioten egiaztagiriak. - Kontratazio-organoak prozeduraren hasiera erabakitzen duen ebazpena ematea. - Kontratuaren arduradunak egindako txostena, kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 betearazi dela dioena.
- Txosten juridikoa.
- ABEEa osaera berriarekin formalizatzeko erabiliko den eskritura publikoaren zirriborroa ekartzea kontratistak.
- Kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaera aldatzeko eta ABEE kontratistari jakinarazteko baimena ematen duena.
- Kontratistaren profilean argitaratzea kontratazio-organoaren ebazpena, ABEEaren osaeraren aldaketa baimentzen duena.
- ABEEa eskritura publikoan formalizatzea.
- ABEEak beste berme bat gordailutzea Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian. ABEEak lehenago emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko harik eta berria formalki eratuta eduki arte.

34.2.2.- Baldin eta, ABEEa osatzen duten kideetako baten jarduera-adarra bateratzeko, zatitzeko edo transmititzeko eragiketen ondorioz, sozietate xurgatzailea, bateratzearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo jarduera-adarra eskuratu duena ez bada ABEEaren kide, 32.2.1 klausulan adierazitako izapide berberak beteko dira, kontratuaren betearazpenari buruzkoa izan ezik (zenbatekoaren gutxienez % 20).

34.2.3.- ABEEko kideren bat konkurtso-egoeran deklaratzen bada, likidazio-fasea irekita egonda ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 69.9 artikuluko c) letran xedatuta dagoenari jarraituko zaio, bat etorrita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 212.5 artikuluak kontratua betearazteko beste berme nahiko batzuk emateari buruz xedatzen duenarekin. Kasu horretan, honako jarduketa hauek egingo dira:

ABEE kontratistak idazki bat igorriko dio kontratuaren arduradunari, ABEEko kide bat edo batzuk konkurtso-egoeran daudela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera, eskaera hauetakoren bat egiteko:

- Kontratua betearazten jarraitzea gainerako kideekin. Kasu horretan, ABEEak, osaera berriarekin, eskatzen diren kaudimen- edo sailkapen-betekizunak betetzen dituela dioten egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.
- Kontratua betearazten jarraitzea ABEEko hasierako kideekin, konkurtso-egoeran daudenak barne.
- 32.2.1 klausulako 2. eta 9. bitarteko puntuetan (3.a izan ezik) deskribatutako izapideak egitea. Eta, kontratazio-organoak ebazten badu ABEEak kide guztiekin jarrai dezala kontratua betearazten (konkurtso-egoeran daudenekin ere), kontratua behar bezala betearazteko besteko berme gehigarri nahikoak eman beharko ditu ABEE kontratistak, hain zuzen ere kontratazio-organoak bere ebazpenean adierazi dituenak.

V.- KONTRATUA AZKENTZEA

35.- BETETZEA: ENTREGATZEA, HARRERA EGITEA ETA LIKIDATZEA

Kontratistak kontratuaren xedea bertan ezarritakoaren arabera eta adjudikazio-boterearen gogara oso-osorik betetakoan joko da kontratua betetzat.

Aurrekoa egiaztatzeko, harrera- edo adostasun-egintza formal eta positiboa egin beharko du botere adjudikatzaileak, eta aurretik txostena egin beharko du kontratuaren arduradunak zerbitzu-betearazpen zuzenaren inguruan.

Zerbitzua zuzen gauzatu ez bada, hala jasoko da harrera-aktan; halaber, kontratuaren arduradunak jarraibide zehatzak emango dizkio kontratistari, ikusitako hutsak zuzen ditzan itundutakoaren arabera.

Epe hori amaitutakoan, kontratuaren arduradunak bidezkoa dena egiaztatuko du, emandako jarraibideak behar bezala bete direla ziurtatzeko. Jarraibideak bete ez direla ondorioztatzen bada, ikusi diren ez-betetzeak edo akatsak identifikatuko ditu txosten batean, eta kontratistari eta kontratazio-organoari igorriko die; gainera, inguruabarrak kontuan hartuta, jarduketa hauetakoren bat egiteko proposamena ere bidaliko die:

Kontratua suntsiarazteko prozedura hastea eta, horrez gain, bermea konfiskatzea eta kontratista behartzea botere adjudikatzaileari kalte eta galerak ordaintzera, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan. Halaber, bermea baldintzatzen duten betearazpeneko baldintza bereziak urratzen direnean, bermea 31.2 klausulan aurreikusitako prozeduraren araberakoa izango da».

Zuzenketak egiteko beste epe bat ematea eta zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren edo gehieneko aurrekontu mugatzailearen % 25ekoa.

Azpikontratistak ez badu horretarako emandako epean konpontzen, kontratua suntsiaraziko da, eta bermea konfiskatu. Halaber, kontratistak kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio botere adjudikatzaileari, konfiskatutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

Entrega partzialen kasuan, azken harreraren termino berberak aplikatuko dira.

36.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 211. eta 306. artikuluetan ezarritakoez gain, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

Botere adjudikatzaileak dituen zuzendaritza- eta ikuskaritza-eskumenak eragoztea.

Kontratistak konfidentzialtasuna errespetatzeko duen betebeharra ez betetzea.

ABEEaren kasuan, kideren bat SPKLren 211 a) eta b) artikuluetako inguruabarrean dagoenean, administrazioak eskumena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten gainerako enpresei kontratu-betebeharrak bete ditzatela eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.

37.- GORABEHERAK

37.1.- Kontratazio-organoaren prerrogatibak.

Kontratazio-organo eskudunak ebatziko ditu gai hauen inguruko auziak: administrazio-kontratuen interpretazioa, aldaketa, berori betetzeak sortzen dituen zalantzak, kontratua betearazteagatik kontratistari egotz dakiokeen erantzukizunaren adierazpena, betearazpena etetea, kontratuak indargabetzea eta ondorioak. Kontratazio-organoaren ebazpenek administrazio-bidea amaituko dute, eta, ebazpen horien kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio hari hilabeteko

epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hileko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

37.2.- Prozedura.

Kasu berezietarako baldintza-agiri honetan eta sektore publikoko kontratuen araudian ezarritakoa izan ezik, botere adjudikatzailearen eta kontratistaren artean kontratuaren betearazpenean eta azkentzean sor daitezkeen gorabehera guztiak aldebiko espediente bidez izapidetuko dira, eta espediente horrek honako jarduera hauek hartuko ditu barnean, nahitaez:

- Botere adjudikatzailearen proposamena edo kontratistaren eskaera.
- Entzunaldia kontratistari, bost (5) egun balioduneko epean.
- Kontratuaren arduradunaren txostena.
- Hala badagokio, aholkularitza juridikoaren txostena.
- Hala badagokio, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena.
- Kontratazio-organoaren ebazpen arrazoitua eta kontratistari egindako jakinarazpena.

Interes publikoko arrazoiek justifikatu ezean edo gorabeheren izaerak hala eskatu ezean, prozedura hau izapidetzeak ez du kontratua geldiaraztea ekarriko.

38.- <u>EGINTZAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA</u>

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa da organo eskuduna Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44.1 artikuluan jasotako kontratuen inguruan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44.2 artikuluan jasotako egintzen aurrean kontratazio-arloko errekurtso berezia ebazteko, bai eta dagozkion behin-behineko neurriak hartzeari buruz erabakitzeko ere.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44.1 klausulan jasota ez dauden kontratuei buruzko egintzen aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 121. eta 123. artikuluetan aurreikusita dauden errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.